MIREN AGUR MEABE

KRISTALEZKO BEGI BAT

Miren Agur Meabe

Kristalezko begi bat

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2013 Miren Agur Meabe
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2013ko martxoa
Edizio hau: 2013ko martxoa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Nire neska lagunei.

Eta M.ri. Geugatik.

Begia ez da meatzari bat, dio Virginia Woolfek,
ez urpekari bat, ezta altxor ezkutuen bilatzaile bat ere.
Begiak emeki flotatzen du ibaiaren mende.

MARGUERITE YOURCENAR

Zenbat maite duen esan dezakeenak
ez du asko maite.

PETRARCA

Eta denok bagara fikzioen sortzaileak? Eta denok asmatzen badugu etengabe gure bizitzaren historia? (...) Uste nuen gure bizitzaren historia geurea dela, nahi dugun moduan eraikitzeko, mundu errealak ezarritako mugen barruan, edo baita horien aurka joanda ere...

J.M. COETZEE

ATARIKOAK

Begi bat galdu nuen, ezkerrekoa, hamahiru urte nituenean.

Ama hil zitzaidan, hiru hilabete eta erdian, obarioetako minbiziaren kausaz, hogeita hamazortzi urte nituela.

Orain dela urte batzuk banatu egin nintzen. Ahoberokeria polita litzateke esatea senarra urrundu izanaren errua literaturak daukala, gauza jakina dela gizonek, oro har, ez dituztela gogoko izaten liburuak idazten dituzten emakumeak. Hala dio Marguerite Durasek *Idaztea* liburuan. Baina ez: senarrak urte luzez maite izan ninduen, eta neuk bera, eta bata besteari rentzat izan ginen. Hala ere, halako batean batak bestearengandik itxaroten zuena jasotzen ez hastea, horixe bihurtu zen gure ontziaren azpiko baga. Orduan bai, beste maitasun hori, idazkuntzarekikoa, jarri zen bion artean.

Gureak hondoa jo eta laster, abentura bat izan nuen. Mamografia batean bi orban seinalatu zizkidatelako eta gizon hark niganako ageri zuen jaidurak (hasiera batean amodiotzat hartu nuen adeitasunak) be-

rezi sentiarazi ninduelako bilatu nuen haren besoen aterpea. Beldurra apaldu nahiak, etsipena eztitzeko desesperoak, amorrua gidatzeko lehiak eta arauak hausteko premiak bultzatu ninduten. Eta maitasunak, neure ametsez maitemintzen bainaiz sarri: tximeletaren egarria daukat, ez dakit ondo ulertzen den zer esan nahi dudan. Oraingoz, bularreko orbanak geldi daude. Gizon haren eta nire arteko harremanak ere ez zuen aurrera egin.

Aurki dator urtebete lanean kontua eskatu nuela. Ez zen nire tokia engoitik. Egun osoko idazlea naiz estreinakoz. Enkarguzko lanak zertuz ateratzen dut bizibidea.

Esanak esanda, hara non aurtengo udan erraiak atera dizkiodan neure buruari: M. utzi dut. Orain ondorioekin borrokan dihardut. Batzuetan harritu egiten naiz anartean bizimodu normal antzekoa egiten dudalako.

Gainerakoan, galdu ditut aterkiak, bankuko txartelak, giltzak, zapiak, autobusak, belarritakoak...

Ez dut oraindik lagunik galdu, ohartuta behintzat.

Berrogeita zortzi urte ditut, eta jendemodu gehienak bezala, hainbat galerari egin behar izan diot aurre. Horregatik ekin diot testu hau idazteari. Uste

dut lehen pertsonan emateak eragotzi egingo diola denborari nire memoria guztiz jatea. Neuretzat idazten ari naiz, beraz, baina zeuretzat ere bai akaso, akaso zeu ere bazarelako maitasunak jo eta egundaino akabatu ez duen norbait.

NIRE PERLAREN PREZIOA

Ezker begia kristalezkoa dut. Begi eriak begi osasuntsua kutsa ez zezan ipini zidaten, oftalmia sinpatikoa deritzona saihesteko. Jakinarazi zidatenean begia erauzi behar zidatela, izuak hartu ninduen: ez da ariketa samurra betidanik izandako atal bat baztertu eta zeure aurpegia irudikatzea bertan begi postizoa duzula, txilioka bezala.

Ezin nituen burutik ezabatu txikitako irudi bi: bata, parkeko lorezainarena, eta bestea, aitaren parteko osaba batena, haien bien kristalezko begiak ituak lakoxeak zirelako, finkoak, higigaitzak, hilak. Alabaina, azaldu zidaten, begia zelan galdu den (istripuz ala gaixotasunez) eta erauzketan orbain garbia geratu den ala ez, bestelakoa izaten dela betondoaren itxura.

Lorezainari perdigoiek atera zioten begia ehizakontu batean; nire osabari, petardo batek umetan, lagun baten amarrua tartean. «Begiratu hormako zulo horretan» esan zion, «ogerleko bat dago, baina ezin dut atera... Ea zeuk». Osabak begia arrimatu zuen hormara.

Glaukomaren ondorioz galdu nuen nik. Puxtarri gorri okerra bilakatu zitzaidan begia. Deformazio hori aldean eman nuen nerabezaroa. Inoiz edo behin esamesak heltzen zitzaizkidan: «Hain neska polita... Errukia ematen du». Horratik, gauzak zer diren, ernegazio handiagoak eragin izan dizkit gerri-bueltak.

Ikasketak amaitu eta ikastola batean lanean hasi bitartean kontserbatu nuen begi endekatua. Ikasle batzuek ipinitako izengaiztoaren berri izan nuenean, disgustua hartu nuen, baina zer itxaron ikasle gaiztoengandik.

Kezka bat izan nuen lehenengotan, aintzat hartzekoa sentibera izanez gero: ea posible ote zen negar egitea benetako begirik izan ezean. Negartia naiz eta. Lantua beharrezkoa zait neure buruari erakusteko pertsona zintzoa naizela. Halaber, dagozkidan gertaerei transzendentzia emateko ere balio izaten dit. Neurkera fidagarria iruditzen zait.

Lehenbiziko begi faltsua janztea kalera biluzik irtetearen parekoa iruditu zitzaidan. Lotsak, baina, ez zuen iraun.

Aurreikuspenen eta emaitzaren arteko bataz bestekoa eginik, nago zortea izan dudala nire perlarekin,

egungo protesiak, indibidualizatuak izanik, natural samar geratzen direlako, ez antzinakoak legez.

Dena den, gizon batekin lehen aldietan oheratzen naizenean, kontuz ibiltzen naiz begia dela eta. Betazalen presioa ezin denez erabat kontrolatu (gura ez izan arren, ezker begia erdirekita geratzen zait, baita lo nagoela ere), larrua jotzeko orduan kontzientzia izaten dut alerta, begiak ganoraz ixteko. Ohituta ez dagoenari txundigarria gerta dakioke nire begi biek uneoro bikien moduan jokatzen ez dutela konprobatzea.

ATERAKO NAUTE GAITZETIK

M. utzi dut.

Ordutik, lauzpabost ordu egiten dut lo guztira. Gauaren zati handiena koltxoiaren ertzei helduta ematen dut, besoak gurutziltzatuen gisan. «Ez, hori ez da hildakoen jitea» esaten dut neure artean, «hildakoak eskuak altzoan egoten dira normalean». Inbidia ematen didate hildakoek.

Tarteka, ezin izaten dut arnasarik hartu. Iduri zait M.ren oinek bularra zapaltzen didatela.

Ordu erdi inguru behar dut janzteko.

Sigi-saga nabil, mozkorren antzean; edo haztamuka, eskuak paretetan bermatuz, zorua hondoratzear balego lez.

Saihetseko mina ernatu zait berriro (kiste bat daukat giltzurrun batean, aldika zolitu egiten zaidana). Bistakoa da agurrak eta ondoezak txikot bakarrean kordatzen zaizkidala norbaiti (edo zerbaiti) erriatzeko orduan.

Uztailetik hona derrigorrean baino ez naiz kalera atera, errekaduren batera edo etxeko zaharrei bisita laburrak egitera.

Etxe bat utzi didate Landetan. Herenegun iluntzean heldu nintzen. Lehenago ere etorri izan naiz paraje hauetara Aste Santuko oporretan, familian. Oraingoan isilka, irailaren hasieretan, arduretatik ihesi aldi baterako. «Ezin dut gehiago» esan nien jabeei, bikote lagun bati.

Hemengo herriak bata bestearen antzekoak dira: udaletxeko plaza, erdian porlanezko iturria, okindegia, estankoa, bistrot kristaleztatua eta marmolezko plaka elizaren saihets batean, Morts pour la patrie. Erdigunetik irten ahala hasten dira etxe solteak, zein bere belardiarekin, eta tartean pinudiak.

Duna baten gainaldean eraikita dago Le Rayon Vert. Ozeanoa braustaka aditzen da, zientoka maskorrek elkar igurztean egiten duten hots latza. Bitsezko mendela ageri da hondartzan. Han-hemen ezpata-belarrak, zilarrezko zurden antzeko. Kalatxori bat topatu nuen lurrean hilda, tripaz gora, begiak dilista horixkak bihurtuta. Hanka bat katigaturik zeukan autoa uzteko saila mugatzen duen sare metalikoan.

Ate aurrean pilaturiko hondar-tontorra kendu behar izan nuen etxera sartzeko. Aldarte eskasa nuen

halako zereginari ekiteko, baina egin egin nuen, negar-muzinak gorabehera. Paraje honetan haizea hain da zakarra, harea sarrailetatik ere barneratzen da. Pala bat behar da eskura, beste toki batzuetan eskularruak edo eltxoen aurkako ukendua behar izaten diren moduan.

Argiak piztu, eta poltsan ekarritako mokadu bat marruskatu nuen nire puskak antolatu bitartean.

Idaztera etorri naiz. Boligrafoa pikotxa bihurtu zait baina.

Idatzi egingo dut, kontakizun dudana idatziz jartzeak nolabaiteko hilezkortasun-sentipena emango didalako (sentipen erabat erridikulua, bestalde). Haatik, oraingoan ere paperek aterako naute gaitzetik. Orrialde bat egunero. Neurri hori ezarri diot neure buruari.

Mahaian paratu ditut koadernoa, hiztegia, erlojua, telefonoa eta infusioa (mendafin, melisa eta ezki-lore egoski lasaigarria). Dozena-erdi bat hartzen dut egunero; gauetan, deprax. Ez dago mina arintzerik.

MINAREN ALDAKIAK

Ez nuen uste honenbesteko tragikotasunez hartuko nuenik desamodioa berriz (ala pentsatzekoa zen baietz?).

Mina solidoa denean, beherantz egiten dizu tira, sabeletik, harri zapal batek legez. Horrelakoetan, burua zintzilik egoten zara. Lepoko giharren laxotasunak eragotzi egiten dizu burua goratzea edo jiratzea. Saiatzen zarenean, zutunik bazaude, oreka galtzen duzu. Iruditzen zaizu aldaroka zabiltzala. Orduan sabelera eramaten dituzu eskuak. Intziri egiten duzu, zinkurin itoa, itxaropenez gabetua, animalia zahar batena lakoa, zintzurrean sortu eta aire-kolpe batean sudurzuloetatik irteten zaizuna.

Beste batzuetan, mina zorrotza da, ziri bat saihets-hezurren artean aztarrika. Min horrek begiak eta eztarria harrapatzen dizkizu. Negarra dakarren mina izaten da, zeure buruaren errukia pizten dizuna. Esaldi etsiak murduskatzen dituzu, zeure paraderoaz zu zeu hunkitzeraino. Negarra zotin bihurtzen denerako, ohean jesartzen zara, eta geldi egoten sabaiari adi, edo logelako beste edozeri, koadro bati edo aulki

bati, arnasa baretu arte. Aurpegia estaltzen duzu eskuekin. Hopperren pinturetako emakumeen parekoa da zure itxura horrelakoetan. (Arrazoiz dio Harkaitz Canok agurea kokoteraino dagoela guk bere hilobia arpilatzeaz, zertarako eta gure malenkonia dekadente eta gaizki ulertua legitimatzeko. Alabaina, zer, emakume horiengan aurkitzen badut neure islarik doiena).

Besteetan, mina ukabilkada bat izaten da, M.rekin ezustean topo egitean arrandegian, plazan edo botikan. Bat-batean, abiadura handian mugitzen da dena, bera izan ezik. Atzealdea dekoratu lauso bat bilakatzen da, ia antzematen ez dudana, lokietan sentitzen ditudan taupaden bortitzak ez didalako uzten bista apartatzen M.ren ahotik. Halandaze, aurpegiko mina geratzen zait, zaplazteko bat eman balidate bezala, berba-trukea egin eta gero bakoitzak geure bidea hartutakoan.

Minik txarrena, ordea, atzaparrarena da. Urdailaren hormak uzkurtu egiten dira atzaparrak oratzen dienean. Orduetan ezer jan ez baduzu ere, botalarria datorkizu. Komunera isurtzen dituzu listua eta behazuna. Pentsatu nahi duzu likido horretan madarikazio bat iraizten ari zarela, gonbitoen bidez libratuko zarela zigor bidegabe horretaz, ezein gizonek ez baitu me-

rezi honelako esperpentorik. Min hori oinazea da, mina bainoago.

Oinaze horrek jipoitzen nau M. beste andre batekin imajinatzen dudanean. Izan daiteke hazpegirik ez duen norbait, ezagutzen ez dudan haren lankide bat, esaterako; edo herriko emakume bat, beltzarana nahiz ileargia, baina liraina; edo neska bat, heldu batekin liatu dela lagunei kontatu nahi dien lotsabako bat. M. zutunik ikusten dut, atzetik txortan, oraldika. Sakada bakoitzean, neuk oparitutako zintzilikarioak (harri berde-gris bat, haren begien kolorekoa) dantza egiten dio papar bilotsuan. Halakoetan, mesillako lanpararen etengailuari eusten diot, eta argia itzaltzen dut, argia pizten, argia itzali, argia piztu, beste behin, berriro ere, piztu, itzali, irudipen hori itsutzeko eginahal antzuan.

Nahiago gorputzik ez banu. Adar kraskatuz beteriko zakua dut gorputza. Tertzioan nengoke katabut batean. Nekez sinestekoa da, pairatu ezean, zenbaterainokoa izan litekeen amodio zapuztuaren lorra.

LE RAYON VERT

Etxeari izen hau zergatik jarri ote zioten ez dakit.

Izpi berdea Verneren liburu bat da, oinarrian fenomeno optiko erreal bat duena: eguzkia azalera lau batean ezkutatzen denean, azken izpiak errefraktatu egiten dira atmosferan, halako moldez non kolore berdeak eta horiztak jalgitzen diren. Eguzkigaina gordetzen den une horretantxe, distira berdekara bat hauteman dezake giza begiak.

Kondairaren arabera, errainu hori batera ikusten dutenen artean maitasun-lotura sortzen da. Beharbada, aurreko jabeek toki honi iritziko zioten kokagune aproposa etxearentzat, izpia begiesteko esperantzan. Edo hemen begiztatuko zuten, eta horrexegatik eraikiarazi bizilekua. Ergelkeria galanta.

Eric Rohmerren film bat ere bada izen horrekin. Urteak dira ikusi nuela, eta gatzbakoa iruditu zitzaidan.

Etxearen beheko solairua pieza bakarra da, sukalde-egongela horietakoa. Komuna ere behean dago, eta trastelekua. Altzariak garbi daude, hatz-marka barik. Egia esan, bet-betan ohitzen gara auskalo nork

erabilitako edalontziak eta ohazala baliatzen, hasieran erreparoz begiratu arren, orban dudazko bat edo ile kizkurren bat noiz topatuko. Bai errezelei, bai ateostean zintzilikaturiko eukalipto-adar sortari igartzen zaie oraintsu jarritakoak direla.

Goian logela bi daude. Zabalena hartu dut. Hormak zur zurixkaz forraturik dauzka erdi pareraino, eta handik gora margotuta. Leiho kontra dago ohea (handiegia, diot, bularrak laztandu bitartean). Oinen tokian kutxa bat, aurrez aurre tximinia, besaulkia, eta apalean botilatxo bat belaontzia barruan duela, Souvenir des Landes. Kilim batek apurtzen du gelaren monokromia.

Epel dago, ia sargori. Kalatxoria erretiratu behar nuke usteltzen hasi baino lehen. Eguzkiak ostra baten barruko aurpegia dirudi zeru matean.

KRISTALEZKO BEGI BAT OBJEKTU BAT DA

Historiako lehen begi artifizialak 4.800 urte ditu. Hiri Errearen aztarnategietan aurkitu zuten, Mesopotamian, gaurko Afganistango fronteratik hurbil. Emakume gazte baten burezurrean agertu zen, eta alkitran naturalez eta abere-gantzez egina da. Begi-ninia dauka erdian eta, zaintxoak antzeratzeko, urrezko harizpiak, diametroa milimetro erditik beherakoa.

Kostatuko zitzaion gorputz arrotz hartara egokitzea, neuretara dakit. Zapata barruan garbantzua gogaikarria bada, ez da atsedengarriago latsarria begi-orbitan. Batek baino gehiagok egin du, molestiak, desengainuak edo etsi txarrak eraginda, hartu eta mailuarekin jo eta apurtu.

Baina protesia galdu edota kenduz gero, zikatrizazioa gerta liteke, eta horrek baditu ondorioak. Izan ere, ez da komeni izaten aldi luzerako begia ateratzerik, husgunearen joera kuzkurtzea delako. Kasurik txarrenean gerta liteke berriro sartu ezin izatea.

Neuri ere gero eta zailagoa egiten zait, adinaren kariaz. Ez pultsua trakestu izanagatik, azalaren kalitateagatik baino: goiko betazala ahuldu, eta begiaren irekidura estutu egin zait; beheko betazalak ere irmotasuna galdu du (gorputzeko beste edozein atalek lez), eta ozta-ozta eusten dio postizoaren pisuari. Horrek zaildu egiten du begi berria taxutzeko prozesua.

Begia aldatu egin behar izaten baita lau edo bost urtetik behin: kristala higatu egiten da, kresal arteko haitza bezalatsu (malkoak ere gazi). Kontuan harturik begiradak aurpegieran zenbateko eragina duen, adituek gomendatzen dute begia epe horren barruan aldatzea: begi usatuegiak tristura-kutsua ematen dio bisaiari (sentimendu usatuek beste). Kontsumo-produktuen mailan sailkatu ezin arren, kristalezko begiek bizi-itxaropen jakina daukate.

Azalaren makaldura dela-eta, begia erortzea eragozteko, orain dela urte batzuk josi egin behar izan zidaten betazalen barne-ertza, praka zabalegiak gerriaren tamainara ekartzeko egin ohi den bezala. Konponketa bizkorra izan zen. Gogoan dut zirujauak laztan egin zidala aurpegian, ohatilan etzanda nengoela kirofanoan sartu aurretxoan.

LURRAZ ETA AIREAZ

Ezin dut telefonoa aparte eduki. Konketan ipintzen dut dutxatu bitartean; mesillan, lotarako orduan. Ez dut inoiz amatatzen. Mezuren baten zain nago beti. Baten bat sartzen denean, asaldatu egiten naiz, M.rena delakoan; jarraian, amorratu, soinua entzutean aztoratu egin naizela onartu beharragatik.

Udan, loezak jota, halda-maldaka jaikitzen nintzen gauerdian. Inoiz edo behin, botilari heldu eta zurrut egiten nuen muturretik. Kamisoi hutsean eta tximak airean, Lana Turner edo Lee Remick film haietan bezala. Alkoholak inarrosi egiten ninduen, neuk neure baitan eraikitako gordelekua biguntzeraino, eta ihes egiten laguntzen zion hitz-jarioari arrakala beratzenetatik (sormena omen deritzo horri, defentsarik gabe geratzen zarenean azaltzen duzun etorriari).

Orduantxe idatzi nituen testu honen hasikinak, apunte-mataza bat, karpeta batean ekarri dudana hona. Ez ditut ohar guztiak ulertzen, letra nagiz idatzi nituelako; beste batzuei ez diet zentzurik hartzen, honako hauei, kasurako: «Ezin dut entzun *txori* hitza» edo «Sulem herriko neskatxa hura naiz ni». Alabaina,

bada baten bat guztiz gardena egiten zaidana: «Zergatik ez da klarionezkoa nire bihotza?»

Balkoia eta azulejuak garbitzeari ekiten nion. Armairuak eta kaxoiak ordenatzen nituen, zaratarik egin barik, auzokoak ez esnatzeko. M.ren opariak ere bota nituen: oskolak, nire ilearekin ondo zetozen eskularruak, poltsa morea (neure kolore kutuna da morea), beraren argazki bi, Pirinioetatik ekarritako basaloreak, eta enkajezko gerruntze beltza, ligekin jartzekoa.

Ezinezkoa zen, hala ere, guztiaz gabetzea: urtean zehar Bilbotik Lekeitiora bitarteko kilometroak egiteko behar gorriaz; edo M.ren gaiek gure solasei ekarritako berritasun aberatsaz; edo haren ezpainen tinkak nire azalari ezagutarazitako erredentzio-sentimenduaz. Egin duzu sekula negar ohean, plazeraren plazerez? Hori ezin liteke part jaurti zaramara, ezta ordenagailuaren paperontzira arrastatu ere. Halakoentzat ez dago zaborrontzirik, denboraren zuloa izan ezik. Eta bitartean, paper hauek.

Beste inoiz, ortura joan eta belar txarrak ateratzeari lotzen nintzaion, belauniko, gau berandua izan arren. Sekula-belarra eteten nuen, zoroaren pare, eta sakabanatuta utzi. Azazkalak lurrez bete ahala berdintzen zitzaidan sabeleko putzua.

Egunez gainezkaldiak izaten nituen. Edozer irensten nuen, akaburik gabe. Goiz batean, hondartzako santzei begira egotetik bueltan (haien ibilera aihergaren ondamuz), harategitik pasatu eta, etxera heltzeko astirik gabe, atari batean sartu eta urdai zati bat haginkadaka lauskitu nuen, gordinik. Grinaz egin nion hozka gantzaren kailuari, hagin artean geratzen zitzaizkidan haragiaren zain gorrixkak. Gomutatzen naiz atariko kristal zeharrargian euriak jotzen zuela, eta eskaileran pausoak sumatzean suspertu nintzela handik alde egiteko lain.

Soka horren beste muturrean baraua zegoen. Irakindako berakatz eta perrexil salda izaten nuen jaki bakarra. Haatik, ez nintzen ahul sentitzen: logabe eta jangartxu zaudenean, Bobilis-bobilis izpiritua sartzen zaizu zilborretik, eta altxatu egiten zaitu lurretik hazbetera. Eta zeure zorigaiztoaren lokatzetan plisti-plasta bazabiltza ere, lertxun sentitzen zara lur mortuen goiti hegan, maite duzun baina maite ez zaituen hori jadanik ez dagoen eskualde baterantz urrutiratzen.

AHO BIKO AIZTOAK

«Inoiz ez dizut ezer eskatuko, zaude lasai» esan nion hasieran.

Historia baten lehen zedarria jar dezakeen esaldietako bat da, azkena gertaeren bilakaerak landatu ohi baitu. Neureganatu nahi izan ditudan gizonak ez ikaratzeko astinduriko bandera zuria, premisa estrategiko bat, hurrengo kapitulurik izango zen ala ez axola ez, eta itzulingururik gabeko eskaintza egiten nienekoa (koltxoi gainean elkarrekin buelta batzuk emateaz ari naiz). Baina, izatez eta egitez, norberaren debozioa errail artean sartzea nekosoa da; eta inorena gobernatzea, aldiz, ezinezkoa. Esan nahi dut iristen dela une bat non burujabetasuna eta berezko joerak ados jartzea borroka abailgarria bihurtzen den.

Aho biko aiztoa da esaldi arranditsu hori, zintzoa izanda ere. Esan izan dut, harremanaren noranzkoa bideratuko zuelakoan, eta hutsaren truke saia nintekeela sinistuta. Melodramaren xarmak harrapatu, eta heroi izendatzen nuen neure burua *Mon style de vivre* film partikularrean. Protagonista erdipurdikoa izan naiz, baina, gidoia behar besteko duintasunez jokatze-

ko ezgauza (duintasunez edo koherentziaz, hitz bi horiek sinonimotzat har balitezke).

Hitzak eskatu nizkion M.ri. Horrela egin nion traizioa neure buruari. Horregatik utzi nuen M. Horregatik utzi zidan joaten.

«Sekula ez nizun maitasunik agindu» esan zidan amaieran.

AMETSEN GARRANTZIA

Hein batean, ametsek dute honen guztiaren errua. Nola mina infekzioaren zantzua izaten den, hala amesgaiztoak beldurrarenak. Beldurrak nengoen M. neure dependentziaren lokarrian atxikitzeko. Ametsek aurrelana egin zuten burubide hari men ez egiten laguntzeko. Ez nuen gura M.ren asmoetan artetu, baina, aldi berean, nire gurarietara gehixeago bil zedin espero nuen harengandik. Luma edo elur-maluta izan gogoz, ezari-ezarian, hartxintxarra izaten hasi nintzen. Horra hor nahi eta ezinaren ironia bat.

Amets-zenbakia: 1 (2011-6-10) / Haurdunaldia

Haurdun nago, pozarren. M.ren atzetik noa kalean, bera pauso batzuk aurrerago (nire ametsetan, maite ditudan gizonak aurretik doaz beti). Norbait hurbildu zaigu zorionak emateko. M. jiratu egin da eta, sorbaldak goratuta, hauxe dio: «Ez da nirea».

Esanahi bi eman nizkion ametsari: bata, gure artekoa errotuz zihoala nigan, baina M.k hazkunde hartatik at geratu nahi zuela; bestea, M.ren arazoak neurriz haraindi neureganatzen ari nintzela (bazituen zama

batzuk nirekin konpartitzen zituenak, iraganeko kontu batzuk beti zaharberrituak. Denok izaten ditugu lorkateak).

Kontatu nionean, sumatu zuen tiratuko niola amets itxuraz xelebreari kantoiren batetik, berak nola hartzen zuen esanarazteagatik. Banuen ahulezia hori, M. hitzez inguratzeko afizioa neure gustuko esakuneren baten bila. Errezeloak xaxatzen ninduen, batzuetan ospeldu egiten zitzaiolako begirada nirekin zegoenean: esaten ez zituen berben zelatan egoten nintzen, eta horrek uzkur jartzen gintuen biok.

M.ren sukaldeko mahaia zabala da. Eguzki-begitan, aldare bat zirudien (hala diot, kursileriaren marratik harantz lerratu arren). Agindu zidan bertan etzateko, ahuspez, bere erara uxatuko zidala amets itsusi hura. Ipurmamietan pa eman zidanerako, neure zauriari piko egin nion berriz, amu berberarekin.

– Ez nuke nahi hau azken aldia izaterik.

Kalmaz erantzun zidan:

– Ez dago zertan.

Ekina naiz baina. M.ren bizitzan interferentzia bat izateko eskubidea ukatuko banion neure buruari, banuen haren zintasuna proban jartzeko eskubidea ere, setatia izanik.

– Zuk ez nauzu behar. Gure hau uzten badugu...

Eta berak:

– Isildu zaitez... Ez dago zertan.

Amets-zenbakia: 2 (2011-6-15) / Leihoarena

Bigarren ametsean, M. norabait doa, jai batera edo. Alkandora beltza jantzi du. Ezin ederrago ikusten dut, gizon tantaia leiho aurrean. Berarekin noala esan, eta ezetz, bere kabuz doala. Tiradizo jasanezina sentitzen dut berarenganantz. Bat-batean, konturatzen naiz leihoa arriskua dela niretzat, eta arineketan ihes egiten dut.

Izerditan esnatu nintzen, kamisoiaren tiranteetako bat apurtuta, arnasestuka eta buruko minez. Pertsianaren zirrikituetatik sartzen ari ziren izpiak hatz zorrotzak legez sentitu nituen lokietan, «burutik zaude, laztana» esan eta esan.

Bilbon nengoen orduan. Egunero berba egiteko ohitura genuen arren, M.k ez zidan deitu gau hartan, ez bezperakoan, ezta hurrengoan ere. Neuk ere ez berari (ez nion inoiz deitzen. Aiseago konprenituko duzu xoradura haren sarean eulia izatea laket nuela esaten badizut).

Ura eta jogurta, besterik ez nion eman gorputzari egun haietan, garbi jatea barrenak mamurtzen zizkidan arrangura asebetetzeko modua zatekeelakoan. Izarak erosi nituen. Arrapaladan egiten nuen dena: M.k baztertuko ote ninduen laborriak, burutazio hutsak, inurritegietako borborra ipintzen zidan gorputzadarretan.

Lepoko zaina taupaka jartzen zait oraindino, leihoak nola hots egiten zidan gogoratu orduko: «Etorri, Meibi, etorri». Garbi ikusten nuen ametsaren zentzua: leihotik salto egiteko tenorea hurbiltzen ari zen (paralelismoa eginez, M.rekikoari amaiera ematekoa). Ez nuen, ostera, behar besteko indarrik, ezta amorrurik ere, neure buruari amiltzen uzteko. Ez nengoen prestatuta hutsmina nozitzeko. Horretaz lehenago jabetu izan banintz, atsekabeak aurreztuko nizkion neure buruari.

Noizean behin elkar ikusten jarraitu genuen. Haren gorputza kaliza bat zen niretzat, une desberdinduak gordetzeko bitxiontzi bat, belusezko kordoi samurra, aldika urkabilurra bilakatzen zena, gure artekoa estutzeko edo lokatzeko erabakimena bere kasa uzten nuelako, nire gogoz bestera baina neure borondatez.

Amets-zenbakia: 3 (2011-7-25) / Maletak

Alferrik zen aitorpen baten kontsolazioa antsiatzea. Orduan hil ala bizikoa begitantzen zitzaidan zalantza hura asaskatzea; orain ez diot ematen inongo muntarik neure hobe beharrez ezerekin auskaka egiteari.

Arratsalde osoa eman genuen sofan etzanda. Oinak almendra-kremaz igurtzi nizkion (lehor izaten du azala, kresaletan ibiltzeagatik uda nahiz negu). Galdetu zidan: «Zertarako nahi dituzu berba usatu horiek, edonork eta edozergatik, ia sentitu ere egin barik, esaten dituenak?»

Haragiak badu ahalmena une batzuetan dena ezereztekoa. M.ren gainean jesarri nintzen, zangalatraba. Atsegin nuen hala, hazpegien tirandura ikusi ahal niolako, ahoaren keinua nire ahoaren bila. Inoiz gutxitan so egiten zidan begietara. Berariaz aipatzen dut arratsalde hartakoa, euria zelako, eta sabelpetik ura isuri nuelako, erruz.

Gauean amets unagarria izan nuen. Maletak egiten ari nintzen. Gero, maletok hartu, eta tarras eramaten nituen txabola batera; txabolatik, gaztelu batera; gaztelutik, autokarabana batera; hortik etxera ga-

rraiatu nituen berriz; etxetik ganbarara; eta segi. Alban itzartu nintzen, trenputxartuta: ez nekien non kokatu neure burua, nire bide-horniak, nire bizitza. Ahapeka kontatu nion M.ri. Eta berak:

– Gauzak tokiz aldatzen ibili barik, utz itzazu bakean, eta geratu geldi, neure ondoan. Egizu lo. Ez duzu ikusten hemen nagoela?

– Ez dut nahi nirekin egoterik niganako penaz.

– Zuganako penaz? Neure buruaren pena ez izatearren segitu nahi dut zurekin.

Ez nion hartu egiantzik esaldiari (ez nuen M. pattal imajinatzen ni gabe). Beti bezala, eskean hasi eta M. limosna ematera behartu nuelako mingostu nintzen. Azken aldiz egin genuen maitasuna, nik negarrez.

Garatzeko: a) Harremanaren hierarkiaz zehatzago hitz egin; alegia, besteak norberaren itxarokizunak ez betetzean, bihozberoago denari esleitzen zaion gutxiagotasun-egoeraz. b) Haustera bultzatu nauten beste arrazoiak aipatu: M.ren indibidualismoa aisia antolatzeko orduan, ni beraren negar-zapitzat hartzeko izan duen abusuzko joera... c) Argitu ea erabateko egia den neuk utzi dudala, ala bion nahia izan den, zehar-

ka (neuk eragin nuen haustura, baina txintik esan ez banu, zer urrats emango zukeen berak? Agian norabide berean, ezin jakin). «M. utzi dut» hanpurutsu horren atzean, zenbat urguilu dago? Ez ote zidan duintasunak zapasaltoa eginarazi, neure beste tirabira intimo batzuk saihestearren?

FANTASMA

Tupustean esnatzen zara. Zartada batek iratzarri zaitu, oin-hotsak eskaileran, edo txori baten takadak kristalean. Lipar batez ezin duzu bereizi zarata hori ametsaren barneko soinua izan den, ala benetakoa, gelan zertua.

Oroitzapenak tropelean datozkizu, aliritzira. Hasieran txera egiten diezu. Burmuinaren opariak dira Urbasako pagadian egindako siesta, Apikaleko terran hartutako bainua, Bardeetako sorbeltzak, M.ren begi berdantzak. Ai, memoria traidorea, beti leku-denboren arroilaren gainetik hegan. Segituan dator sastakoa: «Ez duzu sekula hain hurbil izango berriro».

Orduan bai, tanta bastoak bihurtzen dira gomutak, garezurra zulatzen. Burua moztu eta irlaostera jaurtiko zenuke, arrainen bazka. Ez, hemen ez dago irlarik. Landetan zaude, Le Rayon Vert izeneko etxe batean. Eta mamu bat etorri zaizu bisitan. Haren izena ahoskatzen duzu, mikatz.

Zer mezu eman nahi ote dizu? Zer gogoratzeko eskatzen ari zaizu? Badakizu horixe dela bisitaren xedea: ahaztura eragoztea. Ahaztea pittin bat hiltzea

delako, bai bera, bai zeu. Buelta hartzen duzu ohean. Erlojuaren kablea askatzen duzu. Semearen argazkiari begiratzen diozu (ondo dago, bere aitarekin).

Ez duzu irratia pizten. Ez duzu telebista ikusten. Ez zara inorekin mintzatzen. Horrek ez dizu onik egiten.

Zentzunak krak egingo ote dizun beldur zara. M.ri toki honetaz hitz egin ezin diozulako, egiten duzunaz eta ez duzunaz, zutaz. Beheak galtzen dituzu zeure akorduz dagoela otutzen zaizunean, eta horregatik bertoratu dela haren fantasma. Esango zenioke: «Estutu zaitez nire kontra». Baina egunsentirako ez duzu ezein zantzu sumatzen, ezer ez hemengo brisaran zure bazterretakorik ekartzen dizunik. Leihotik lezkak ikusten dituzu haize kresaltsuan erretzen.

ENUKLEAZIOAREN TEKNIKA

Enukleazioa deritzo begia erauzteko ebakuntzari. Traumatismo larriak izan direnean praktikatzen da, edo gaixotasun baten ondorioz begi itsuak dolore handiak ematen dituenean (Ondarroako institutuan ikasle nintzen garaian musuzapiarekin sakatzen nion begiari erre-negarra leuntzearren, busean nahiz ikasgelan, sarri).

Ez da ebakuntza konplexua. Zazpi urratsetan egiten da, anestesia eman ondoren:

a) antibiotiko-tanta bana ipini begi bakoitzean, eta soluzio fisiologikoz garbitu

b) blefarostatoa jarri (betazalei zabalik eusteko balio duen tresnatxoa da blefarostatoa, *Laranja mekanikoa* filmean agertzen zena)

c) konjuntiba 360º ireki linbotik 3 mm-ra (linboa begiaren geruza gardena da)

d) kakoekin 4 zuzenei heldu, eta 4 zuzenak eta 2 eslaiak ebaki (zuzenak eta eslaiak tendoiak dira, begiaren higidurak ahalbidetzen dituztenak)

e) zuzenak suturaz josi

f) enukleazio-koilara sartu sudur partetik, gorantz sakatuz, indarrez

g) nerbio optikoa ebaki artazi kurbatuekin

Begia atera eta gero, zuloa bendatu eta bakean utzi behar da denboraldi batean, inflamazioa pasatu arte ezin baita ordezko elementurik ipini.

Postoperatorioko arriskuen artean aipatzekoak dira hemorragia, giharren edo ehunen galera eta goiko betazalaren ptosia (betazala jaustea, partez edo osorik).

Ez nuen izan horrelako gorabeherarik. Orduan, enukleazioa jasan nuenean, ez nuen ezer jakin nahi kirurgia-prozesuaz; orain, ordea, topatzen diot zentzua gabetzearen urratsak ezagutzeari.

AUTOERRETRATUA

Ez daukat arrazoitze-gaitasun handirik, baina naizena baino adimentsuagoa ematen dut neure hitz-etorri dotoreari esker. Askotan, esaldiak bukatzera jotzen dut zehatz jakiteke zer esango dudan edo esaten ari naizena hausnartu gabe. Dotazio intelektual ertainekoa naizenez, ez daukat ez polemikarako, ez dialektikarako joerarik. Hala ere, oso argia izan ez arren, praktikoa eta malgua naiz arlo domestikoan, eta arlo profesionalean ere ordenatua eta eraginkorra izan naiz, guztiz sistematikoa izan gabe. Lehengo aldean geldoa, gero eta txarrago eramaten ditut jendetza eta zaratak.

Neure buruarekiko konfiantza-faltak denbora galarazten dit, aiko-maiko ibiltzen bainaiz zalantzak askatzeko edo erabakiak hartzeko orduan, konponbideak berez etorrizalea. Ez naiz iritzi irmokoa: eragingarria naiz, hoberen mintzatzen denaren aldean paratzekoa batzuetan. Beti ez zaizkit aski gertatzen neure baliabideak eta eskarmentua ataka txarretatik airoski irteteko, ez baitut jakiten nondik heldu arazo batzuei logikaren ikuspuntutik. Halakoetan, aholkua eskatzen diet urlia edo sandiari, zentzuduntzat ditudan lagunei,

gaiaren arabera. Horregaitino, arrastoak hautematen ditut izadian, adibidez, edo seinaleak ametsetan, niretzat inportanteak diren kontuekin erlazionatuak (lilurakeriak esanahiz hornitzen ditut, lau horma arteko Kasandra baten erara).

Diplomatikoa eta tratu atseginekoa naiz gehienetan (lortu dut zenbait gauza nire xarma pertsonalari esker), ingurukoak neure gogo-aldartera erakartzeko gai eta mesedeak egitekoa. Irekia eta lagunkoia, batzuetan friboloa, besteetan neure burua serioegi hartzekoa. Trebea naiz ondoeza talde txikietan hedatzen, pozoi bat bezala, zaila egiten baitzait emozioak mendean ezartzea. Dena den, ez dut albokorik salduko, ez naiz azpisugea.

Amorrua, bai, azpiratu izan dut, herra hortz artean karrakatuz aurpegiko azala berdatzeraino. Ausarta eta koldarra naiz, erdiz erdi, non, noiz eta zertarako. Hala ere, gutxitan erasoko diot inori isekaz edo umore burlatiz. Ez naiz herratsua. Inoiz inor laidoztatzen badut, edo iraintzen, aurrez aurre nahiz ezkutuan, tartean inbidia-graduren bat dagoen seinale, edo lehenago bera nirekin zikina izanaren pagu.

Konplitzeko pertsona, saiatua eta dinamikoa gorabeherekin, buru-belarri sartzekoa dedikazioa eskatzen

duten jardueretan, sartu-irtenak egiten ditut perfekzionismoaren auran. Erritmoa ezartzen diot lanari, eta bizkor indarberritzen naiz. Gutxitan harrapatuko naute ezerezari begira (egoera anomalo hau da salbuespena).

Izaeraz samurra, sentibera eta zaurgarria, badakit eroapentsua, eskuzabala eta sakrifikatua izaten. Alabaina, kikildu egiten naiz gogor hartzen nautenean; edo matxinatu, zakar tratatuz gero. Gezurrak esaten ditut presiopean, edo bertsio ez guztiz zuzenak ematen.

Batzuetan iruditzen zait bizitza zera dela, zelai zabal bat non helburu on eta bidezkoak posible diren, deduz jardunez gero (baita norberaren sosak banatzeko erreparoak bentzutuz gero ere). Horregatik, batzuek nire xalotasunari xuria irizten badiote ere, izan nezake beste batzuen iruzurretan jausteko arriskua. Estratosferan egon ninteke, egoera arazotsuez jabetzeke inork nire hodeiari zizt egin arte.

Janzalea naiz. Gorputzaren plazerak funtsezkoak dira niretzat. Sugartsua, sexu-astinaldietatik indartuta ateratzen naiz, landare lizun baten moduan hazita. Tamalez, nire grinari batzuetan jelosiak laguntzen dio. Bestalde, harreman afektiboetan molde ez-konben-

tzionalek erakartzen nauten arren, nire liberalismoa faltsu samarra gertatzen da praktikan (harreman ideal irekien eta masokismoaren arteko tarteari estuegia deritzot).

Egokitzapen sozialaren aldetik, integratua naiz. Ia trabarik gabe onetsi izan ditut arauak eta diziplina. Erraz egiten naiz giro gehienetara. Otzana, mundu guztiarekin onez onean egon nahi izaten dut, etsairik irabazteko ahaleginik egingo ez dudala, nahita behintzat: ezin dut liskarrik jasan.

Aldizka, dramak egiten ditut (idazki hau froga). Horretan ikusten da nire ahulezia psikologikoa. Autoflagelazioak, biktimismoak, neure buruaz errukitzeko joerak, neure akatsekiko gorrotoak eta okerrengatiko erru-sentimenduak, hutsaren hurrengo naizela sentitzeak, gozamen karmina ematen didate. Hurbilekoen gupida eta arreta ernaraztea atsegin dut pairamen gutxikoa naizelako.

Nire aje nagusietako bat, kalte gehien egiten didanetakoa, honako hau da: berbei gehiegizko garrantzia ematea (deformazio profesionala, agian), ezen inork esandakoak hitzez hitz hartzearen ondorioz, aldrebestu egiten naiz eta bihurretara jokatzen dut, neure burua babeste aldera. Gutxi batzuetan, halaber, muti-

ritu egiten zait mihia, neuk ere ez dakit nola, eta esaldi bakar batekin kakazten dut dena. Dela esangabekoei, dela esandakoei buelta eta buelta ibiltzearren, burua bero izaten dut sarri, tortura bat.

Egozentrikoa naiz. Nire lanei egolatria-sunda darie, oro har. Nartzisismoaren zaldarrari ebakidura sakona egin beharko niokeen arren, oinarrizko eragozpen bat topatzen dut horretarako: begi-laburra naiz, lehenago esan dudanez. Horra hor ikuspegiak zabaltzeko urritasunaren zioa.

Eta arrakasta apal baten zipriztin gozoek ukitu banaute ere, ez naiz harroputza.

Borroka etengabea egin izan dut neure izatearen barruan birgaitzeko, alderdi ganorazkoak ongarrituz eta makurrak arteztuz. Nire ongizatearen gakoa honetan datza: dagozkidan esparru guztiak kontrolpean edukitzean (ez autoritatearen zentzuan, funtzionamendu harmoniatsuaren zentzuan baizik). Kontzientzia horrek ematen dit bultzada oreka bilatzeko.

Noizbehinka klaustrofobia-sintomak izaten ditut toki zarratu eta gaizki argiztatuetan, garajeetan, kasurako (izan liteke hamazortzi urte eman nituelako leihorik gabeko bulego batean, testuliburuen argitaletxe baten zuzendari. Lanbide horretaz mintzatzea

etxea hustu dizuten lapurrak omentzearen antzekoa iruditzen zait gaur egun, baina neurea izan zen errua: balakuen eta soldata ederraren ordainetan, lan ongiegi eginaren tranpak semearen umezaroa eta senarraren eraspena zurrupatu zizkidan. Denbora kendu nion denborari. Hipoteka ezarri nion etxearen gozoari. Ez nuen jakin langa jartzen egitea komeni zenaren eta egin beharrekoaren artean. Areago, hain nengoen neure misioaz sinetsita, iraingarria irudituko zitzaidakeen, feminismo gaizki ulertu baten eraginez, lan hura baztertzeko edozein proposamen. Damu dut gurpil zoro hura trabatzeko zorka-ziririk garaiz jarri ez izana. Atzenetarako, bost lan-egunetatik hirutan negar egiten nuen bulegoan, eguzki betaurrekoen atzean ostenduta. Hango zamak talotuta nindukan).

Edonork bezala, ezaugarri kontrajarriak ditut nire nortasunean, batzuetan kale, besteetan bale. Zoritxarrez, ez naiz nortasun sendoko pertsona, badakizu zer esan nahi dudan.

Aipatzeko: a) Banitatea edo koipe-dosien premia noiztik noizera; inor neu benedikatzen aritzeak ematen dizkidan segurtasuna eta gustua. b) Neure buruaz

dudan ideia –autopertzepzioa– eta bestek nitaz egiten duen balioespenaren arteko zerikusia.

KALENDULEN HILABETEA

Faltan hartzen ditut loreak. Mania bat, loreak hurbil izatea. Nekea igartzean, loreei begiratzeak bizitu egiten dizkit zentzumenak. Gauza txikien misterioa gogoratzeko eta egun bakoitzaren alde estetikoa ez ahazteko balio didate. Neu ere Szymborskarekin: «Barkatu, lekutako gerrak, etxera loreak ekartzeagatik». Neure baratzea hutsesten dut. Baina orain ez dut horretaz hitz egingo.

Loradenda bat bilatu dut. Saltzaileak kalendulak gomendatu dizkit. Irailari dagokion lorea omen da, urre-botoia. Azaldu dit, apaingarri gisa erabiltzeaz aparte, sendabelarra ere badela, eskuetako nahiz oinetako artesiak goxatzeko balio duela eta landarearen zuku egin berriak goitikak baretzen dituela.

Aproposa gomendioa.

Iratzeen hilabetea ere bada iraila, eta sanantolinena, eta marea biziena. Mareak ekarritako saskarak apartatzeko sasoia bihurtu zait aurten. Jan ezazu hordagoa: *être,* izan eta egon; *être, pas avoir.* Sinestea izango da kontua, eta trebatzea. Gimnasioan bezala,

eskertuko nuke norbaiten animo-hitza albotik: «Egin ahal duzuna».

– Gustura hemen? –galdetu dit neskak, loreak autora eramaten lagundu didanean.

– Trafiko-zaratarik ez dago behintzat.

Atzeko jarlekuan sakabanatuta daukadan liburu piloari begira geratu da.

– Simone daukat izena, nahi duzunerako.

Hirugarren astea betetzen dut gaur hemen. Urtaro-aldaketa sumatzen da paisaian. Begian ere bai, beti lehorrago udazkenean.

Lehen baino atzarriago erreparatzen diot izadiari. Hierofania-ehizan nabil (mezuei zokomiran txorien tobi-tobian, edo sorgin-orratzen txilinbueltetan, edo goroldioak berdaturiko istilean), ez atsegin bila, adimendu bila baizik. Jakin dakit portamolde honen logika nulua dela, superstizioaren erpinean nabilela. Hala ere, zantzu horiek abisuak ditut estatismo honetan pitzadurak zabaltzeko: egunero idatzi behar dudan orrialdearen puntua ematen didate.

Atertu duenean hondartzara jaitsi naiz. Bainu laburra hartu dut, hemengo tiraina ez baitut ezagutzen.

Ezkerretara, Cap Bretoneko itsasargia ageri da kaimuturrean.

Bikote bat agertu da dunen artetik, pausoa pausoaren parean, barrezka. Sastada bat sentitu dut. Begia kendu zidatenean ere, ezin nuen alboetara begiratu, begi sanoaren higidurek tenk egiten zietelako, simetriaz, bestearen arrail hutsaren barruko puntuei. Nire erreakzioa gisa horretakoa da besteren zoriona ikusten dudanean.

Ohituta egon behar nuke nahi dudana beti ez edukitzen; ez dago horretaratzerik, ordea. Zertarako matxinatu? Sare metalikoan hildako kalatxoriaren antzera, neure gosearen preso zenduko naiz, idealismo-birrinak mokoan.

MAYBE

M.ren SMS bat jaso dut (laburdurek eta orduak salatzen dutenez, presaz idatzia, lanetik). Esaten dit Janis Joplinen kanta bat entzuteko: *Maybe.* Zertara eske hori? M. ez da bere egintzen eragina neurtzeko gauza. Edo bai.

Interneten bilatu dut bideoa. Janis oholtzan azaltzen da zuzeneko emanaldi batean. Abestiak kode baten kategoria hartu du berehala: M.k Meibi deitzen dit. Berak asmatu zidan deitura hori, hitz-jokoa eginez neure abizenaren eta ingelesezko aditzondoaren artean. Elkartu ginenetik, *agian, akaso, beharbada* bat izan naiz. Horixe nahi nuen hasieran; geroago, menturaren menturan, hotzepela iruditu zait probabilitate-gradua.

Ez dakit Janisen ahots urratua beste aukera baten erreguz ari zaidan, ala nirekin bizi izandakoak omenduz.

Neuk ere abesti bat entzunaraziko diot M.ri, Janisen beste edozein, *I need a Man to Love* edo *Call on me*. Horiek ere badirudite niretzat eginak (antsiolitiko-

ak edo Bachen loreak bezainbeste). Paso, ez, isilik, kito.

Ozta-ozta eutsi diot erantzuteko bulkadari.

Maybe, Meibi, Meibi, erreklamaziorik ez jartzeko alibi. Erdizka maitatutako Meabe, hutsari eusten dion zutabe. Oraindik ez dakizu, tuntun alaena, itxaropena dela tranpa zantarrena?

ITZALA

Eguzkiak ingurua argitu arren, itzala pittinka barneratzen zaizu poroetatik, zainetarako bidean. Ezpainak estutzen dituzu izurri tankerako horri hesiren bat jartzearren, baina kokatu zaizu ahoan, piku bigunegi baten moduan dardaraz duzun hobian. Hedatu zaizu aho-sabaira ilunaren latorri-zaporea. Mihia pasatzen duzu hortzetatik, lehor dituzu papilak.

Sudur-hobiak umeltzen zaizkizu. Musuzapiari atximur eginez baretzen zara (poltsikoan aurkitutako zapia lehenago burututako beste batailaren baten lekuko objektiboa da). Hankak astuntzen zaizkizu. Ez duzu lurrean etzatea besterik, umil, txakurra ugazabaren jipoia hartutakoan bezala. Badakizu hobe dela aurka ez egitea, den-denean zabalduko zaizula muinetaraino, eta zeure izatearen eremu ezagun eta ezezagunekin nahastuko dela ore trinko eta antzekaitza osatu arte.

Halako batean zirkin egingo duzu, hozkirria sentitzean. Luzaro egon zara alfonbran botata. Nekez zutundu zara. Zure gorputzak leihotik sartzen den argia xurgatu eta silueta bat proiektatzen du, orpoetan jaio-

tzen dena. Soslai makurra da, barruko masak erditutakoa. Horregatik, itzala galdu zuten harako haien istorioak datozkizu gogora, haiei buruz zer esaten den, ez zeruan ez lurrean tokirik topatu ez zuten arimak direla gerizak.

Mahai-tresnen tiraderari begira geratu zara. Nahiko zenioke aiztoa sartu zeure itzalari, erdibitu edo ebaki. Ez duzu nahi zurekin egoterik, inora laguntzerik. Ezinezkoa da, hala ere, norberaren itzaletik askatzea.

Beste itzal batzuk oroitu nahi zenituzke: mahatsparra batena, edo izkirena ume baten hondartzako baldean, edo zeure buruarena gazteagoa zinenean. Baina denak mudatu dira, eta arrotz, margul eta iheskorrak dira orain. Eta zuk zeure itzalpean hartuta irauten duzu, kristalezko flaskoan horma joka dabilen erlamandoaren antzera.

KORALAREN PROPIETATEAK

Proposatu zidaten begiaren ordez inplante bat jartzea; hau da, plataforma bat josi zuloko giharrean, eta haren gainean biozeramikazko xafla bat itsastea, begia antzeratzen duena. Konponbide bikaintzat dute, material porotsu horrek begi barruko ehunak haztea ahalbidetzen duelako.

Hidroxiapatitazko inplanteen garapena 90eko hamarkadatik honanzkoa da (nik 83tik daukat kristalezko alea). Karibeko uharte batzuetako koral batetik lortu zuten lehengaia. Konposizioan kaltzio karbonatoa duenez, transformazio kimiko batzuen ondoren gai biokonpatible bat ematen du, giza hezurraren antzeko substantzia bat. Hortik eratorri dira geroko material sintetikoak, hala nola polietilenoa edo alumina.

Inplantea jartzea, ostera, mingarria da, oso, eta garestia. Ezezkoa eman nuen: egunen batean nire habiak ezin badio nire arrautzatxoari ostatu eman, laga egingo dut, besterik gabe. Horretarako daude partxeak (pozik legoke Saudi Arabiako apaiz hori, aldarrikatzen duena emakumeek jendaurrean, gorputza, ilea eta aurpegia ez ezik, begi bat ere estali behar lukete-

la, partxea jarrita, haien begiradek gizonezkoen grina itsusiak tenta ez ditzaten).

Perfekzioa eta erabilgarritasuna gorabehera, kristalezko begiak badu alderdi eskas bat: bekarrak. Norbera zenbat eta nekatuago, hainbat eta bekar gehiago. Eta zenbat eta sarriago garbitu, hainbat eta muki gehiago sortu. Horregatik, nik neuk ez dut inoiz kentzen begia, ez garbitzeko, ez lo egiteko. Bakoitzaren organismoak eta nahiak agintzen dute horretan.

Egunean zehar nahitaezkoa da lubrifikazioa. Ohituraz daramatzat poltsan malko naturalen potetxoa, ispilua eta kleenexak. Gainontzean, sei hilabetero okularistarenera (begigilea da okularista) joaten naiz, mikrouhinen sistema baten bidez higienizazioa egin dezan. Eta kito. Ez dauka misteriorik kristalezko begi bat zaintzeak.

ARDO ZURIA

Ibili egin behar dut. Kalanbreak izaten ditut hanketan, orduak jesarrita emateagatik. Zira jantzi, eta paseo bat egitera irten naiz. Katamixar batek lasterka egin du adar batetik bestera ni sumatzean. Eskutzarren antza hartu diet iratze bustiei bidezidorrean.

Ekainean talaia zaharrean pasatu genuen gaua. Linternekin igo ginen muinora. Oskarbi zegoen, izarrak eukalipto trauskilen artean. M.k ohantze bat zeukan prestatuta, iratze piloa labanaz moztuta egun batzuk lehenago. «Iratzezko habia bat egingo dut biontzat» agindu zidan. Halako oparien merituak sortu ohi duen euforia ezin da epe laburrean ordezkatu. Eta agian ezta epe luzean ere.

Gaur goizean aireak zerrauts-usaina zekarren. Gizon bi topatu ditut enborrak txikitzen soilgune batean. Zaunkaka etorri zait haien txakurra, eta geldi geratu naiz lurrera begira (zeharo ikaratzen naiz txakurrekin), gizonetako bat hurbildu, igurtzi batzuk egin eta egur tato bat apartera jaurti dion arte.

– Egurrik saltzen duzue?

– Bai, herrian baino merkeago. Eztia ere badaukagu, etxekoa, hantxe.

Etxalde bat seinalatu dit basoaren hegian. Izerdituta zeukan alkandora besapeetan. Arbelezko teilatutik gora, keak bizar urdinak marraztu ditu zeruan.

– Goazen, lagunduko dizut.

Bebarruan daukate denda, denetarik topatu ohi den antzinako txoko polita, erdi taberna, erdi biltokia ere badena.

– Helbidea esaten badidazu, neuk eramango dizut etxera enkargua.

Gizonaren hatz hezurtsuei erreparatu diet nire helbidea idatzi duenean.

– Fitxatuta zaude –esan dit, begiarekin keinu egin-da.

Keinu egin dit eta bihotz-zimikoa igarri dut. Betikoa.

Beste harekin endredatu nintzenean ere, oker ulertu nituen haren seinaleak (deiak, opariak, bisitak). Ez ziren sedukzio-joko aurrez neurtu baten aztarnak, gabezia baten isla baizik, baina usainean zebilen ibili, hori egundo onartuko ez zukeen arren. Neu izan nin-

tzen aurrena gonbita luzatzen, eta neure zurrunbiloan arrastatu nuen.

Pena-boladei edozein zurkulu ixtearren, pozerauntsiaren menera ibili nintzen, mendiak jauzi bakarrean zeharkatzeko gauza, bota magikodun erraldoia legez. Askatasunaren karikatura egokia. Afera laburra izan zen: gaizki aukeratu nuen konplizea (arrazoiak aipatzea ez du merezi).

Pertsona batzuek ezaxola erakusten dute maitasunarekiko, edo sexuarekiko, gehiagoko barik. Ez dakit borondatezko erabakia den, konformidadea, alferkeria edo bestelako lorpena, erronka bati emandako erantzun moduko bat. Nik neuk, jakin arren inor gura izan barik kexu ugari saihestuko nukeela, haragitik datorren afektibitatea neure buruari debekatuko banio, edo derrigorrak hori ekarriko balit, akabo: orbel-meta ustelaren edo uraren ertzean kordokatzen den arrainaren antzera ikusten naiz. Larriminak jotzen nau.

Bokazioa dut pasioaren burdin harian ibiltzea, alderdi batean izotza, bestean desertua. Behatzak minberaturik ere, pausoa luzatu nahi. Eta amiltzekotan, antzutasunaren aldera edo egarriarenera, bigarrena hautatzen dut beti.

Eguerdirako etorri da. Furgonetako errotuluan, «Rémy et Jacques Lafitte».

– Jacques anaia da. Biona da negozioa.

Tximinia ondoan antolatu ditu enborrak, eta sua pizteko prest agertu da. Ardo zuri kopa bana atera dut, eskertzeko, Biarnoko ardoa, Jurançon motakoa. Ahabi-zuku tanta batzuekin nahasten omen dute hemen.

– Goxoegia nire gusturako, baina zuri gustatuko zaizu, edari suabea da eta –esan dit.

– Ez ba, zapore gogorrak ditut nahiago.

Remyk irribarre egin dio nire erantzunaren anbiguotasunari.

– Eta zerk ekarri zaitu hona? Ez da sasoia oporretarako. Ala lanera etorri zara?

Eskuetara begiratu dit, atzamarretara. Ezkontzaeraztuna etxean daukat: ez nuen saldu iazko neguan, enpresa utzi eta gero. Estu nenbilenez derrama batzuk ordaintzeko, urrezko zerak bildu (jaunartzeko domina, modaz kanpo geratutako bitxiak, baita etxeko defuntuen hortzak ere), eta saldu egin nituen azken

aldiotan hainbeste ugaritu diren Compro Oro batean. Alianza saltzeko azalik ez nuen izan.

– Bietara. Atseden hartzera eta lanera.

Esan diot itzultzailea naizela.

– Horregatik moldatzen zara frantsesez.

– Konpontzeko haina. Oraindik ez naiz guztiz soltatu.

Oraingoan neu izan naiz irri egin duena. Harritu egiten nau neure senak: mankatuta egon arren, ezin alferrik galdu laztankeriarako zirrizturik. Arrakastaren formula: pikardia eta misterioa proportzioan konbinatzea.

– Banoa, berandu egingo zait bestela. Arratsaldeko txanda daukat, hemendik ordu erdira –esan du, lastima erakutsiz.

Furgonetaraino lagundu diot.

– Eta kalatxori hau? –ostikadatxoa jo dio–. Luma hutsetan dago. Ba al daukazu palarik?

Pinudian potxilo bat egin eta bertan lurperatu du.

– Beste kopa bat zor didazu.

Baietz egin diot buruarekin. Alde egin duenean, lasterka joan naiz barrura, oka egitera.

MUSU BAT SORBALDAN

M. ikusi eta bera irrikatzea, dena zen bat.

Hamaikak aldera iristen zen eta tarrapatan egiten zuen atean (neure etxean afaltzen genuen hamabostero, barikuetan). Euskal geishak polito atonduta izaten zuen mahaia: lore bat pitxertxoan, banakako zamauak, entsalada apaina, itsaskiak erretiluan. Ikustearekin batera ez genuen elkar ukitzen. Afaldu ahala etortzen ziren erreklamazioak, berea («Ez nauzu besarkatu oraindik») nahiz nirea («Non da nire musua?»).

Atzetik hurbiltzen zitzaidan ontziak garbitzen nituen bitartean. Nire lepoan sartzen zuen muturra, eta titiak estutzen zizkidan, edo mokorretatik heltzen. Bizarra egin gabe zegoenean nuen hori gustukoen. Lotsaz jokatzen nuen nik; desoseguz, zehatzago esanda, nire gizenuneak mardulegi topatuko zituelakoan. Ezbaiak ezbai, nire gorputzak atoan erantzuten zuen: biluztu ordurako umelduta egoten nintzen. M.ren maleziek (esaten zizkidanak batik bat) eromenaren txanbiurretara amarratzen ninduten.

Oldarka egiten genuen lehen saioa (ez dauzkat ahazteko ohearen krakadak lehenbizikoz oheratu ginenean). Eskua pasatzen zidan bizkarretik, goitik behera, albaitariak abereari konfiantza emateko legez. Gero, zamalkatzean, iletik heltzen zidan, leun, tirakadaren bidez nire gerriaren kurbatura doitzeko justu. Izerditan hasten banintzen, putz egiten zidan azalean. Amaitutakoan, musu bat ezker sorbaldan.

Goiz partean, esnatzearekin batera, bareago aritzen ginen, ni bere gainean jarrita edo biok alboz. Gero larritu egiten nintzen, istant batez, zer diosal etorriko zen: «Egun on, guapa, ez daukat presarik» edo «Banoa, zeregin asko dut gaur». Ez nintzen jaikitzen berak alde egin arte. Ohean irauten nuen, izterren artean M.ren esneari eutsiz, edo izarei usnaka, haren usaina barruntatzearren. Animaliena den zerbaitek estekatzen ninduen beragana.

Eszena horiei eta agurtzeko orduan pa emateko zeukan moduari lur ematea izaten ari da hausturaren axut saminenetako bat.

Ez dut M. deskribatuko, haren hazpegiak edo gorpuzkera. Begiak bai, berde-arreak ditu, eta batzuetan

begi-ninien eraztuna biziagotu egiten zaio, urre-kutsua hartuz. Begi horien balio handienak bi dira: gezurrik esaten ez jakitea bat, eta izadiari aditzen jakitea bestea. Gainerakoaz zer esan nezake, M.ri begiratze hutsak ziztada antzeko bat sortzen zidala ez bada. Itsu maite duten begiei, ederrak min. Ezingo duzu ulertu gertatu ez bazaizu.

Haren dohainak gainbehera datoz, hain arrunt ikusten dut errukirik gabe juzgatzen dudanean. Haserreak argia dakar, ze ostia. M. losintxariak, amilotxak emea limurtzeko zer txistu jo badakienak, beste emakume batzuei so egiteko ere baditu begiak. M. maratzak, eskua segituan luzatuko duenak edonori edozertan laguntzeko, bere bokazioen zerrendan enegarren postua eman eta gela zahar batean ahaztutako pixontzia bezala sentiarazi nau. M. kontulariak, lagunartean eta lantokian poza kutsatzen duenak, ez dit kondiziorik gabeko leialtasunik eskainiko. M. nobleak, «sentitzen ez duena ezin esan eta merezi dudan moduan maite nahi» nindukeenak, lar maite du askatasuna, orube eskerga eta bakarti hori. Hala ere, zenbat bider ez ote dudan sosegatu, esanez gure artean zorrik eta damurik ez zegoela, inuzente arraioak.

M. ez da niretzat. M. ez da niretzako modukoa. Ezin da giza bihotzaren berezko jaidura bezatu, azpiratuz ez bada, edo bortxa erabiliz, edo xantaia. Eta hori ez da nire estiloa.

Berrikusteko: a) M.ren irudi onari kalte egin liezaioketen xehetasunak kendu. b) Nabarmendu M.rekiko interesa ez zela sexuala, zentzu hertsian: haren nortasunak, nire arlokoak ez ziren jakingarriak azaltzeko trebeziak, egunerokoari aurre egiteko moldeak eta gizarteari buruzko ikuspegiak ere gatibatu ninduten.

HUTSIK BAINA PILPIRAKA

Proban jartzen dihardut zenbaterainoko erresistentzia diodan minari. Hemen egonda eta idazten ari naizena idatziz egiten dut hori.

Baina errealitatea, ez denez abstraktua, estolda baten tapa bezain itogarria egiten zait.

Hatsanka nago.

Saiatuz gero, ihes egin dezaket imajinatuz, adibidez, ni neu urrutiko tokiren bat naizela. Eguzkiak ukitzen banau, nire ilea ilundi gorrixkatxoa da itsas paisaia batean, non nire begi-koxkoak atoloiak diren, hutsik baina pilpiraka.

Ohartzen al naiz egonaldi hau, nolabait, zerbait mitiko bihurtzen ari naizela niretzat?

Bai.

URRIAREN 7a

Neure urtebetetzea da. Berrogeita bederatzi.

Semeak deitu dit, zorionak emateko. Hamasei urte egingo ditu datorren hilean. Gogotsu geratu da aitarekin ohikoa baino aldi luzeago baterako. Mutil jatorra da, gauzak errazten ditu, ez da ia ezertaz kexatzen. Erraza izan da bera haztea. Txikitatik iruditu zait eredugarria haren jasa. Zenbat aldiz ez zidan esango: «Zu lasai, ama». Ama onarena zatekeen «ezer ez» edo «ez kezkatu, nekatuta nago, besterik ez» erantzutea, galdetzen zidanean ea zer gertatzen zitzaidan. Alabaina, malko-distira erakutsi izan diot sarri, nahita edo nahi gabe, beti izan naizelako neska handi mainatia. Kontatu dit Ertzaintzak Kukutza gaztetxea indarrez hustu zuela pasa den astean. Bestelako albisteei ez diet arreta-zipitzik eskaini. Musika-taldea antolatu nahirik omen dabil ikaskide batzuekin. Ondo dabilela jakitearekin aski daukat.

Lagunek nahiago izan dute emailez zoriondu. Udan etxera etorri zitzaizkidan, bakoitza bere ofrendarekin, alargun batengana dolu-opariekin bezala. Batak jateko kutixiaren bat, besteak atzazalak pintatzekoa,

hirugarrenak pijama, beste batek liburuak. Bosgarren batek Larraineko pastorala ikustera eraman ninduen (zertarako eta asteburu osoa hotzikaraz eta burua belaun artean emateko). Seigarrenak luzatu zidan antidepresiboen errezeta. Donostiatik eta Gasteiztik hots egin zidaten beste bik, giroa aldatzeko gonbita eginez. Ean ere izan nuen pausalekua. Esaten zidaten: «Aterako diozu honi probetxua, ikusiko duzu». Ahal izan balute, ume bihurtu eta sehaskan jarriko ninduten, txandaka zaintzeko, euren Mitxu. Egun-pasa etortzeko prest agertu da bat baino gehiago, baina lanpetuta nagoela esanda, sinistu didate (hori beti sinisten dute).

Exajeratua naiz emozionalki, badakit. Ezinezkoa zait sentimenduak ostentzea, batzuetan neure interesei kalte egiten diedala jakinik ere. Baina ajea kroniko bilakatzen denean, gaiztu egiten da lagunen egonarria atxikitzea. Dagoeneko agortu zaie arnasa niri urazalean iraunarazteko, eta apenas deitzen didate. Ez daukat behar adinako tenplerik kopla barik aurrera egiteko, eta sobera sentiarazi diet ez direla gai, nahiz eta beren borondaterik onena jarri, ni beste alde batera begira ipintzeko. Hala ere, ezingo nuke hau pasatu

haiek gabe, Maitagura Gozoaren Ahizpen belarri eroapentsu eta arima zangarren laguntzarik gabe.

Hauspo kaskarregia erakutsi dut gauzak trabeska datozenean minari buru egiteko. Adibide barregarria naiz bipiltasunari dagokionez. Oraingoan, euskal poesiaren larrosa ez doa urrunago igeri. Txistua jo diezaiotela merezi du.

Horregatik ere egin dut ihes hona, elizjendeak bakartegietara nola, aldez edo moldez porrot ideologikoa ere baden gertakari hau digeritzera (porrota iruditzen baitzait neure estiloan maitatua ez izateak sortu didan erorialdia). Doluan dolu, aterako ote naiz indartsuago eta jakintsuago ataka honetatik? Sinistu behar ote dut itzulezintasunean?

Utzikeriak sustraiak bota ditu nire oinen inguruan, erro gero eta mamitsuagoak, ezaxolak elikatzen dituelako. Ezin naiz mugitu, hamaika urrakada sentitu arren. Eta ez dut mugitu nahi, erretiro honetaz idatzi nahi dudalako: neure sasitzan endredaturik, salbu sentitzen naiz.

Remy ikusi dut herrian. Kafe bat hartzera gonbidatu nau. Ezezkoa nik, presaz nabilela.

Edozein gizoni begiratzen diodanean, pentsatzen dut ezeinek ezingo didala sekula eman M.k ematen zidan plazer betea.

Merkadilloan izan naiz. Animalien saltokia zegoen (dortokak, hamsterrak eta abar). Gaitzirizten diot txoriak kaioletan duen jendeari. Alabaina, kardantxilo bat erosi dut. Saltzaileak abisatu dit muda-sasoian dagoela eta ez duela kantatuko oraindik. Behar bezala. Janis ipini diot izena.

M.k gauean hots egin dit, soinu-erdiko deia. Ez dit astirik eman telefonoa hartzeko.

EFEKTU DERMIKOAK: MASKORRA ETA SAREA

Ezatsegina izatetik aparte, biolentoa da, jendartean zaudela, kili-kilia duzulako hazka egin eta, begia biratuta, zuri jartzea edota zulotik kanporatzea. Eskuarekin estali eta arrapataka alde egin behar izaten da, toki diskretu baten bila artez kokatzeko. Ez da egoera barregarria, eta bada. Badu meritu-puntua zeure fisonomiaren alde gordin hori zeureganatzeak: begiko sakonune arroxak molusku zanpatua ematen du.

Aldikada batean, eskale bat ibiltzen zen Txorierriko lineako trenean. Pareko jarlekuan jesarri zitzaidan behin. Geroxeago ohartu nintzen betazalen artean zeukan hutsarteaz, eta hozkirria eragin zidan, nori eta hartaratuta egon behar nukeen honi, haren lapatzarrak.

Gaur-gaurkoz, ezin esan mizkina naizenik nire betinguruak diren-direnean aztertzeko. Ezker betazpia harrotuta daukat, saio mediko batean silikona sartu zidatelako botxoaren sakonera gutxitu eta betazpiak

mamitzeko. Betondoaren itxura konpentsatzea zen xiringakaden helburu estetiko-terapeutikoa. Baina, denboraren poderioz eta kalkulu gaizki eginen ondorioz, toles artifizial horiek migratu egin dute, eta orain ezker betazpiak maskor lau baten antza hartu du, sudurrarekiko diagonalak diren ildo erliebedun eta guzti. Horregatik, oso nekatuta nagoenean, aurpegiaren ezker erdiari begiratuz gero, naizena baino zaharragoa ematen dut. Eskuin betazpia, berriz, zimurtxosare batez apaindurik daukat, nire adinari dagozkion marrez.

ADIN ARRISKUTSUAZ

Gorputzeko erlojua aldatuz doa. Hala agintzen dute urteek: loa gutxitu egiten da, gihar-masa gutxitu, kemena gutxitu. Lehenbiziko sintoma hilekoa irregular bihurtzea da (memoriaren intsumisioa lehenago nabaritzen bada ere). Hortik amaierara bitartean sartzen zara, atzerabiderik gabe, adin arriskutsuan. Ohituraz, *aldaketaren adina* deitu izan zaio (nerabezaroari bezala).

Estrogenoen gabeziak desorekak eragiten ditu: bero tupituak, pultsuaren pirpirak, tupusteko izerdialdiak, pixa-galerak, lehortasuna baginan, umore-aldaketak, urduritasuna, bat-bateko tristuraldiak. Osasun-arazoak ere gerta litezke aurrerago, ezagunenak osteoporosia eta gaixotasun kardiobaskularrak.

Begi lehorra deritzona ere bada prozesu hormonalen efektuetako bat. Azkura da zantzu nagusia, begiko mukosak ere sikatu egiten direlako. Alde horretatik, estimatzekoak dira malkoak, haien eragin onuragarria: tipula xehatzean, begian lohiren bat sartzean edo kearen eraginez jariatzen ditugun erreflexu-malkoei era-eran datorkie fardel emozionalaren ondorioz bota-

tzen dugun malko kantitate gehigarria. Begiak infekzioetatik babesten laguntzen dute malkoek.

Soja hartzeko tenorea da. Eguneroko dietan hartzen duten herrialdeetan txikiagoa da bularreko minbizi-kasuen kopurua. Hala ere, industria farmazeutikoan gai erasokorrak erabiltzen dituzte batzuetan (azetoa eta etanola, kasurako), eta zehazteke dago zer ondorio utz diezaioketen organismoari epe luzera.

Ginekologoa adeitsua bada, arduratuko da gomendio batzuk iradokitzeaz: kaltziodun eta D bitaminadun elikagaiak hartzea; koipeak saihestea; arrautzak, kafea eta edari alkoholdunak murriztea; arraina hobestea okelkien aurretik; tabakoa uztea; te berdera ohitzea; eta kirola egitea. Eskuarki, ez dute azalpenik ematen: azken hilekoaren data apuntatzen dute, besterik aipatu gabe (haurra izango duzunean bezala, arretak eta neurriak erditzearen unean biltzen dira, edoskitzaroak dakarren aldapa pikoaz inork abisurik ematen ez dizula). Azken hilekoaren datatik urtebetean odol-jariorik ez denean, au revoir la jeunesse.

Aspalditik hartzen ditut pilula mineralak, bat goizero. Horri bai, eutsi diot. Bihartik aurrera ganoraz gosaltzen eta kirol apur bat egiten saiatuko naiz. Eguraldiak laguntzen badu, bizikleta bat alokatuko dut.

Udaberritik hona behin etorri zait hilekoa, marka luzanga pare bat, maiatzean, fluido ilun baten nahi eta ezin bat, ez arestiko turrusta mamitsuak. Bosgarren etena dut jadanik; horixe izango zen azkena, beharbada. Menopausia, ordea, ez da hilekoak kito esatea bakarrik.

Bero-unada batek jotzen zaituenean, artilezkoa lakoa sentitzen duzu gorputza. Izerdiak lika uzten dizu ilea kopetan eta lepoan. Bizpahiru minutu irauten du gorakadak, eta gorputzetik gandua askatzen ari zarela iruditzen zaizu (poltsetara abanikoa iristen da, ez arrazoi erromantikoengatik).

Aurretik hasten zaizu gorputza aldatzen. Zabaldu egiten zara, jogurt potea platertxo batera iraultzean bezala. Sabela bigundu egiten zaizu, halako moldez non, alboz etzaten zarenean, saihets aldera higitzen zaizun, zahagi baten moduan. Bularrak ere bai. Besoetako giharrek dantzan egiten dizute eta hanketakoek kulunka. Orban banakak ateratzen zaizkizu bekokian. Bular-puntak, aldiz, zurbildu egiten dira. Lepoko azala zimurtu egiten zaizu («terziopelo bizia» esaten zion M.k nire lepoari), eta eskua aurpegitik pasatzean izur finak eratzen zaizkizu, zetazko zapiei legez. Azalaren soinua ere aldatu egiten da: izterrak laztantzean ma-

rruskadura arina entzuten duzu, eta baliteke azal hila, ezkataren batzuk, askatzea. Ilea urdintzen hasten zaizu buruan eta aluan. Beheko ezpainak mehetu egiten zaizkizu.

Estriak ditut sabelean. Argizarizko errekatxoen itxura dute. Zilborrak berak hortzez gabeturiko aho laxoa ematen du, harrizko iturrietako irudi mitologikoek izaten dutenaren antzekoa. Sabela dut gorputzeko alde itsusiena. Hamar bat zentimetroko bi orbain paralelok zeharkatzen didate pubis gaina alderik alde. Finak dira, ez gorri biziak, baina hor daude, sabela bitan zatitzen didatela, Falopioren tronpak kendu behar izan baitzizkidaten uteroz kanpoko bi haurdunaldiren ondorioz (zori ona izan zen bataren eta bestearen artean semea eduki ahal izatea). Horrenbestez, garbi dago estirpazioak badirela leit-motiv poetiko bat nire bizitzan. Umorez esan beharko.

Bestalde, ebaluazio positiboa egiteko orduan, nota ona ematen diet azalari eta ahoari. Eta nola ez, eskuin begiari.

Esandako guztiarekin batera, beste hori dator. Beste guztia, endredoa. Ez naiz ari asaldura mental batez, larriduraz baino, inoiz ez delako arras eta betiko desagertzen bizitza osoan lagundu digun galdera-

txoa («Zer edo nor behar dut neure burua aurkitzeko?»). Biziaro bakoitzean kapaz izan garen arren erantzun balekoa emateko, galdera horren sorburua den irrika, asegaitza denez gero, zirika hasten da berriz helduaroan.

Iraultza intimo hori barnebiltzen duen sasoiari *adin arriskutsua* deitu zion Karin Michaelisek XX. mendearen hasieran, izenburu horretako nobelan. Berrogeitaka urteko emakume batek senar maitatia eta bizimodu erosoa lagatzen ditu uharte huts batera erretiratzeko. Etxe bat eraikiarazi du bertan, eta gutunen bidez gauzatuko du kanpokoekiko komunikazioa. Gutunotan, emakume batzuek klimaterioan izandako aztorapen psikikoez mintzatzen da; eta bere koadernoan, besteak beste, isiltasunaren ikaskuntza deskribatzen du. Ez du, inondik ere, depresio-zantzurik. Bakardadea aukeratzen du, errotikoa, «besteen» modukoa ez izateko. Eromena ez da bidea.

Gertatzen da bakardadearen abaroan ez ezik, inoren konpainian aurkitu nahi izaten dela poz-arnasa (nahiz eta ondotxo jakin hori baino errentagarriago eta eraginkorragoak direla elikadura osasungarria, lan serioa eta jarduera fisikoa). Eta sinistuta gaudenez honezkero arrazoi gutxiago dugula beldurra sentitzeko

edo norberarentzat garrantzizkoak diren gauzak egiten ez saiatzeko, alegoriak eta teoriak asmatzeari ekiten diogu gure jokamoldea arrazoitze aldera.

Klimaterio. Zeharo adierazgarriak Plazido Mujikaren hiztegian *climatérico* hitzaren euskarazko ordainak: *gaitz, gaizto, galgarri, arriskuzko, galbidezko.* Gaztelaniazko *crítico* hitzaren adieratzat ematen ditu, gainera. Grazia berezia topatzen diet galtzearen ideiarekin zerikusia duten adierei, nire katramila hauen nondik norakoa kontuan hartuz gero. Galtzearen adierak zein baino zein grafikoagoak baitira: lehenago geneukan zerbait nahi gabe nonbait uztea; zerbait alferrik gastatzea; zerbait desagertzea; eta zerbaiten eraginez beste zerbait hondatu, suntsitu edo ezereztea.

MAMOGRAFIA BATEK NOLA ERAGIN ZUEN KALEAREN ALEGORIA

Plakaren arabera, bi orban neuzkan eskuin bularrean, bi hur ilun.

Argiak bat-batean amatatu eta piztean sentitzen den itsutasuna sentitu nuen ginekologoaren kontsultan. Kristalaren bestaldeko zuhaitzari zutik jarritako hezurdura baten antza hartu nion. Mahaiko errezetei eta latexezko bildukiz beteriko ontziari begiratu nien negargura disimulatzearren.

Probak errepikatzekotan geratu ginen. Ados. Hori ez da ezer, titiak bexamela lez zabaltzea metakrilatozko plantxen artean. Bota atzerago lepoa, hurbildu enborra, altxatu apur bat besoa. Oso ondo. Agoantatu pixka bat. Erlaxatu, ez lotsatu zure bular eroriez. Beste pixka bat. Horrela, oso ondo. Erradiografiaren hots metalikoa. Min-putzadak. Eutsi.

Eta titia kendu beharra baletor? Edo zerbait okerragoa? Nola kalkulatu zenbat fereka geratzen zaizkigun? Inon ez da agertzen heriotzaren data aurretiaz.

Senarrari kontatu nionean, besarkatu egin nin-duen. Berba abilak esan zizkidan, kontsolagarriak hunkitzeraino. Gurata ere ezingo nuen erantzun hobe-rik itxaron. Baina ez zidan balio izan. Ez nuen nahi izan balio izaterik.

Ordurako, kale baten moduan ikusten hasia nin-tzen gure historia, hainbat ate eta ate bakoitzean data bat grabatuta zeukan kale bat (zeuk ere izango duzu gertaera seinalatuen zerrenda, zoragarriena nahiz traumatikoena: elkar ezagutu zenuten eguna; lehen-biziko asteburu-pasa; seme-alaben jaiotza; etxez al-datzea, igual; opor haiek; haserre hura familia-bazka-ri madarikatu hartan; zure lankide bat orain bai eta gero ere bai aipatu behar txatxu hori, haren izena ahoskatzean epeltasuna sumatzen duzulako biho-tzean; tutorearen aurrean elkarri destainaz hitz egin zenioten egun estrainioa; zure andrearen dantza zo-ranga parrandetan, eta mendeku gisa kaletik etxeko almohadara eramandako tabako-kerua arnasten hasi behar izan zenuen gaua; edo zure mutilaren eta ka-marera baten arteko irribarrea harrapatu eta «Dena kontrolatu behar al duzu?» amorratu bat txupatu behar izan duzunekoa, aurpegira jaurtitako kerrua lez).

Egun txar solteak ohiko giro biziatua bihurtzen direnean, itzalpean jarduten du borborka malaletxeak, eta edozergatik ateratzen da, txitean-pitean, egonezinaren askabidea delako. Desorekaren mehatxua ere hor ari da zelatan, batak bere bizitza bete antzean ikusi arren, besteak hustear nabaritzen duelako. Eta bestelako gauza korriente baina durduzagarri horiek guztiak –urruntzeak dakartzanak eta urruntzea dakartenak– ere harramazka aritzen dira, lan isilean. Adiezintasunak deformatu egiten baikaitu bestearen begietara, eta alderantziz: Munstroak ugaritzen dira nonahi.

Ez dago jada bereizterik hurbiltze-maniobrak egiterakoan zer izaten ari garen, sendoago ala makalago. Eta ez dakigunez, nora ezean ibiltzen gara bata bestearen itsu-makila entzuten. Baina pauso zalantzatien hotsak bonba baten durundia izaten du kale isilean (isiltasunaren gudaldia bortitza da) eta, luze gabe, akidurak azpiratzen gaitu.

Zirkuluaren itxia: higuinduta gaudenean, urruti egon nahi genuke; eta akituta gaudenean, dena urruti dagoela iruditzen zaigu. Badelako urruntasun bat, gure izaera materialaren ezintasunen konpendio moduko bat dena. Beste gorputz horrekin korapilatu ga-

relarik, parean dugun aurpegia laztantzen dugu atzamar aztertzailez, inoiz osotara bateratu ezingo diren taupaden kontzientzia berretsiz. Baliteke bera loak hartu izana dagoeneko, edo bere pentsamenduetan beste norabait joan izana, akaso errekaduen lista hutsal batera, kezkatzekoa ez den gairen batera, besterik gabe. Deszifratu gabeko isiltasun horretan jabetzen da gutaz urruntasuna, amildegi baten alde banatan sentiarazten gaituela, begiek ez badute zubi bat luzatzen izateak hurbilarazteko. Ez dago azalaren koderik jela urtuko duenik sentimendu inkonpatibleenak –erruduntasuna eta abandonua– kukutzen direnean biren artean.

Biren kalean izaten dira biok batera zeharkatutako ateak eta elkarrengandik banantzekoak. Eta izaten dira horma-tramuak ur likin batez bustiak, urruntasuna likatsua da-eta, barraskilo-adurraren antzekoa. Bildu egiten zaitu osorik, eta enpaguari amore ez emateko borrokan, hauxe baino ez duzu eskatzen: normal antzean jarraitu ahal izatea lanean, normal antzean eramatea etxeko kontuak, normal antzean bizitzea teilape berean. Laburrean: ez diezazula eragin,

eguneroko antzezlanean, jasan dezakezuna baino zama handiagorik. Halako izua ematen du, hasieran, hain hauskor sentiarazten zaituen urruntasunaren sentipen horrek.

Urruntasunak errun baditu desamodioaren arrabak zure baitan, bi aukeratatik baten alde egitea besterik ez daukazu: edo adur hotza ignoratu, senperrenak eginez etenkako zorionak berriz bere bidea zabal dezan zuon kalean (horixe da bizimodu konbentzional bati konsubstantziala zaion zerga: «kristo guztiari gertatzen zaio, zaila da bizikidetza» eta antzeko berediktuak nork bere buruari behin eta berriz errepikatuz aurrera egitea); edo zugandik espero dena bazter utzi eta bizitzaren kale alegorikoan ikusten ari zaren ate berri hori, zure urratsei tenk egiten dien ate arriskutsua ireki eta zeure kabuz zeharkatzea.

Sentitu baduzu denbora ihes egiten ari zaizula hozkailuetako lurrunak ihes egiten duen antsiarekin, orduan mozorro bat erantzi eta beste bat janztea ebazten duzu, zeure artean esanez: «Emakume bat naiz», esaldi hori bere esanahi osoarekin lurbiran ahoskatzen den lehen aldia balitz bezala.

Barkatzea eta barka eskatzea tatarrez eroan beharreko katea izaten hasten bada, zeuretzat jokatzea-

ri ekiten diozu, tristuraren, erdeinuaren, asperduraren, amore ematearen, beldurraren, erresuminaren eta deskontentuaren trokatik altxatuko zaituen zerbaiten bila (izan liteke gizon baten eskua).

Nago zortea izan genuela gure itsu-makilak gurmatzan elkarri topeka hasi zirenean, etenunea adostu baikenuen, gure iragan politaren errautsak salbatzeko: «Merezi duzu, merezi dut». Maitasunaren tokia ongi-nahiak ordezkatu zuen.

Voilà neure buruari kontatzen diodan ipuina. Ipuinaren justifikazioa, bizitza zukutzeko premia. Gaixotzeko arriskuan edo krisialdian dauden guztiek gauza bera egingo balute, zer litzateke planeta hau, kaosa.

GAZTATXO KAXAREN TEORIA

Egia esateko, bigarren mamografiaren diagnostikoa ona izan zen. Arretaz jagon beharreko kaltzifikazioak ziren mantxa biak, ez tumoreak (eta fini episodio hau, hainbeste planta, ezerezean geratutako alarma batengatik). Alabaina, bitartean neure estatistikak egin eta gero, gaztatxo-kaxaren teoria enuntziatu nuen:

– Bizitza gaztatxo-kaxa bat da –esaten nuen–, baina atal guztiek ez dute iraungitze-data bera. Nirean, badira ordezkatu beharreko lau: bikote-bizitza, lanbidea, bizilekua eta poesia (sinetsi ala ez, momentu hartan antzu nengoen, nahiz eta lasterrera, aipatzen ari naizen gertaera guztiak ernal-indar literario oparoa bilakatu zitzaizkidan); beste hiru atalak fresko daude: semea, lagunak eta neure utopia.

– ...?

– Andreago eta jabeago izatea.

– A! Baina gaztatxo-kaxek zortzi atal ez dituzte edukitzen? –galdetzen zidan hurreko jendeak.

– Demagun zortzigarrena komodina dela, gauza berrientzat gordetako tokia, aldaketak ontzat hartzeko gaitasuna... ura izateko ahalmena. Be water, lagunak.

Orain lotsa ematen dit nire jarrera axal horrek. Zenbat aldiz ez nintzen barregarri geratuko. Areago M.renaren ondoren, konprobatu dudanean buruarekin egiten diren hausturak eta bihotzarekin egiten direnak ez direla aldiunean ez eta aldi berean uztartzen.

Erruki diet (eta mirespen poxi bat) beren gaztatxokaxaren tapa inoiz zabaltzen ez dutenei, kukumarroa kentzen saiatu ere egiten ez direnei, emazte, ama eta alabaren mozorroak (karakterizazioak) hain egokitu zaizkie soinera, hainbeste denbora eta ahaleginen ondoren. Beren zorionaren alfak eta omegak zehatz mugatuta dituzten horiei, txalo bero bat. Hala ere, ilea moztu edo tindatu arren, ideal aitorrezinak ez ote die azkura egingo buruan. Agian erostetxe handietan aurkituko dute sublimazio-bide zilegizkoa. Ausardia modu bat behar baita hertsaturiko sentimenduei azalera irteten uzteko, baita argitasun modu bat ere, berebiziko galderaren terminoak aldatzeko (hau da, «Zer edo nor behar dut neure burua aurkitzeko?» itauna «Nola nahi dut bizi orain?» bihurtzeko). Adrienne Richek

Adrienne Richi galdetu bezala: «Zer egiteko asmoa duzu geratzen zaizun bizi-denborarekin?». Erantzuna ate ezezagunaren bestaldean dagoela sumatzen delarik, arre edo iso, nork zer egingo du, bataren edo bestearen ondorioak inondik inora konparatzekoak ez izaki.

Ezagutzen ditut amorantea adin honetan hartu duten emakumeak. Esan didate hori egitea beren buruari errespetua edo balioa erakusteko era bat iruditu zaiela. Gehienetan, afera horixe izaten da lehena eta bakarra, eta helburu arkitektonikoa izaten du nolabait, egunerokoaren armazoiari eusteko zutabe osagarri bat eskuratzea. Maitasuna ere izan liteke bultzada. Batera zein bestera, biziraupen-kontua omen da: B harremana A bizimoduaren sostengua da; eta B egokiera ostendu beharra, A egoera artatzeko pizgarria.

Askok ezkutatu egiten dute pasarte hori, altxorra larrean lurperatu zuenaren eredura. Gutxi batzuek ematen dute argitara, beste irtenbiderik egon ezean, edota senarra uzteko gertu daudenean (senarrak berak utzi ez baditu, jakin eta batera; nahiz eta badiren senar entregatuak ere, gertatutakoa ahaztu eta berriro hutsetik hasteko prest, emaztea beragatik, edo seme-alabengatik). Banakaren batek poltsikoan

sosik ez duela alde egiten du, ezer eskatzeke eta ezer azaltzeke. Salbuespenak salbuespen.

Gizonezkoei dagokienez, inpresioa daukat asko eta askori eramangarriago egiten zaiela gazta-pusken kalitateaz ez artegatzea honako baliabide hauei esker: futbola, garagardoa, mus-partidak, kanutoak, kirola, txokoko afariak, arrakasta edo botere publikoa eta putetxeak. Salbuespenak salbuespen.

Carolyn G. Heilbrunek honela azaltzen du *Nola idatzi emakume baten biografia* saiakeran: «Emakume gehienek maitatu beharra bihurtzen dugu gu geu maitatuak izateko beharra eta, beraz, gizonengandik eta seme-alabengandik itxaroten dugu haiek, euren bizitzetan murgilduta daudela, eskain diezaguketena baino gehiago». Egunkarian murgilduta zoriontsua den gizon baten ondoan emakume frustratu bat egoten da normalean. Jakina, egunkariaren tokian, beste substantibo batzuk jar litezke. Esan nahi baita: gizon baten zoramen-adorazioa ez bada emakumea haren barnean biltzeko bezain indartsua, emakume horrek erretxinduta bukatuko du, goiz edo berandu, eta hortik aurrera, auskalo zer etorriko den. Alice Munroren ustea da hori *Sekretuak oihuka* bildumako ipuin batean. Liburuaren izenak aski esaten du.

BEGIA GALTZEKO ARRAZOIAK

Begia galtzeko arrazoi nagusiak bi izaten dira: eritasuna edo istripua.

Nire ikasle batek tumorea izan zuen erretinan andereñoa nintzen denboran (beste datu bat, bide batez, umeen espontaneitateaz: «Zer gertatzen zaizu begian?» galdetzen zidaten. Ez zuten espero izaten erantzuna).

Nebaren kuadrillako arrantzale batek begia atera zuen sare bateko enpatxua aiztoarekin libratu nahirik zebilela, aiztoak gorantz ihes eginda, indar biziz.

Solokoetxeko anbulatorioko administrari batek esan zidan bere koinatuak zauri larriak jasan zituela auto-istripu batean, ez dituela kentzen betaurreko beltzak. Txarto darama kontua.

Bada atentatuetan begia galdu duenik ere. Eta manifetan.

Iraultzaren ildotik, zine mutuan dugu adibide trentindun bat, *Potiomkin korazatua* filmeko triskantza (Eisenstein, 1925). Tsarraren kosakoak herriari tiroka

hasten zaizkio, boltxebikeen aurkako errepresalia gisa. Bala batek begi-begian jotzen du emakume bat, bere umearen kotxetxoarekin ihesi doala. Kotxetxoa Odesako eskaileretan behera labaintzen da, eta abar. Ikustekoa da ama horren begialde trilatua.

Osotasunaren premiaz ari da Claudia Massin, esaten duenean galtzen dugun guztiaren emaitza zifra bat dela, bakoitzarena; eta gurea den zerbait galtzen dugunean, galtzekoa ez den zerbait, gure zifra inexaktoa dela betierean.

Zifra inexaktoz beterik egoten da okularistaren itxarongela. Eta galdu-irabazien balantzea egiterakoan, ezin baieztatu begi batek ments duena besteak jasotzen duenik, ez ikusmenean, ez distiran.

GUTUNA

Vieux Boucau, 2011ko urriaren 14a

M. aspaldiko eta betikoa:

Denbora hil egin da, eta berpiztu. Oraintxe ulertuko didazu.

Gaur lurrean agertu da sarrerako erlojua. Atzeko kakoa lokatu, jausi eta orratzetako bat apurtu zaio. Aurrerantzean, erloju ez-osoak ezingo du ordurik eman: inexaktoa da betierean. Ustekabe horrek iratzarri nau anestesiatik, eta begiei klisk eragin dit. Nire esnaera gutun hau idaztean datza.

Azken egunotan eguraldi txakurra egin du. Egongo zinen talan olatuei begira. Igeri ere egingo zenuen igual. Esaten zenuen jakin egin behar dela neurtzen olatuari zenbat eutsi ahal zaion. Erresakak, lehenengo, sakada bat ematen dizula, kanpora aterako zarelakoan suspertzen zarela, baina olatuak beherantz egiten duenean, bahitu egiten zaituela arto-lastoz eginiko txotxongiloa lez. Hirugarren olatuarekin, ito egiten zarela.

Denboraleak adarrak ekarri ditu hondartzara. Batzuk garraiatu ditut etxeraino, trastelekuan zegoen

kristalezko ontzitzar bati hautsak kendu, eta bertan sartu ditut lixa-paperez garbitu eta gero. Hondakinak apaingarri bihurtu ditut. Horretan dihardut, hondartzak eta halabeharrak eskueran jartzen didatena baliatu nahian.

Gure historiak hondartzan dauka hasiera, lehenbiziko hitzak urri hartan, ia urte bi. Maskor-kixkirriz beteta zegoen Isuntza. Hurbildu zinenean, zure altuera, hortzeria eta atzazalak ebaluatu nituen. Ez zintudan antzeman arriskutsua, sexualki esan nahi dut (eta hara zer diren amodioaren apetak gero). Konfiantzaz egin zenidan berba, eta samurtu egin nintzen zure kontuekin (arazo haiek, betiko karga hori). Horra emakume bihozberen ogena.

Geroago esan zenidan lehenagotik erreparatu zenidala zuk bainua hartzen, irakurtzen edo paperen bat zirriborratzen. Galdetua zeniola zeure buruari ea zer litzatekeen ni bezalako emakume batekin amodioa egitea. Zer zen «ni bezalako emakume bat»? Adin arriskutsuan dagoen emakume bat esan nahi zenuen. Bakarrik egoten dakien emakume bat. Zer kontatua baduen emakume bat. Horixe esan nahi zenuen.

Portulano bat dago etxe honetako salan, koloreak, markak eta ikurrak hierarkia baten arabera antolatuta

dituena. Zure akordua ematen dit. Elkarren ondoan etzanda egoten ginenean, «Hauxe da nire lurraldea» esaten nizun, oreztak hatz-puntarekin seinalatu ahala, dozenaka uharte nabar txiki. Musuz betetzen nizun bizkarra, zure bihotza ezpainekin kolonizatzeko kapaz izango nintzelakoan (zuk nirea bokatibo errepikaezinen eta sabelean emandako musuen bitartez egin zenuen). Giharren arteko distantzia, lepoaren eta sorbaldaren arteko angelua, bizkarrezurraren luzera eta ipur-masailen azalera terra cognita nituen; hortik barruragoko eremuei buruz ezin gauza bera esan. Eta orain naufragoa baltsan bezala geratu naiz izaren artean, nora ezean eta iparrorratzik gabe, zu zinen maparen faltan nire bidearen balio-ordena ere galdu delakoan.

Badakizu zein den hemengo turismo-eslogana? «Une autre saison». Egia bada, kartografiaren arabera, etengabe aurkitzen direla barruti berriak unibertsoan, barneratu zaitez berriz nire unibertsoko landetan, eta zatoz hona, Landetara: emakume bat aurkituko duzu hondartzan. «Une femme à l´autre saison» nauzu.

Meibi

Gutunontziaren aurrean zalantza egin eta azkenean ez dut eskutitza bota. Higuina eman didate lirismo txatxuak, sasisantaren poseak, adorazioaren enpaguak, errealitate laua balio sinbolikoz hornitzeko bizioak, hitz-joko merkeek.

Nola ahaztu zait mugak zeharkatzen dituzten igerilari zoroen gorpuak, batzuetan, ez direla agertzen?

Nire ahuldade malatsak faltsutu egiten du nire borondatea.

Baina zein da nire benetako nahia? Zergatik, bestela, gutuneko erretolika? Zeinek izan behar du nire ordain-saria: lotsak ala damuak?

Erre egin dut gutuna. Ez kopiatu baino lehen: neure tintaren madarikazioak mendean nauka.

ANIMATION GASCONNE

Adrenaline parc bat dago Molietsen. Eskuorriaren arabera, arriskurik gabeko dibertsioa eskaintzen dute: quad, body-board, paint-ball eta skate. Enpresa-ekitaldiak, urteurrenak edota agur-afariak ospatzeko gune ezin hobea, egunero ordu bietatik zazpietara, apiriletik irailera bitartean. Gutxieneko adina, 14 urte. Zabalik balego, M.k primeran pasatuko luke hemen. Ume samarra da eta.

Helduentzat gaitzesgarria izaten den apreziazio hori (ume samarra izatea) nasai onartuko luke berak. «Jakin egin behar da ume izaten, heldua izan arren» esango luke, «zergatik ez?».

Ia egunero ikusten ditut alga-biltzaileak. Hossegor aldetik etortzen da talde bat oinez, aldamenean traktorea. Esperimentazio-zentro bat dago ez dakit non, bisitak antolatzen dituena. Hemengo artisauek xaboiak egiteko ere erabiltzen dituzte itsas belarrak, olio eta esentzia naturalekin batera. Baten batzuk lortu behar

nituzke, itzultzen naizenean lagunen artean banatzeko.

Mediatekara eginiko sartu-irten batean ikusi dut afixa bat, kostalde atlantikoko fauna eta landaretzari buruzkoa. Pausoka erakusten du nola eraldatu diren Aturriren ingurumariak baso eta dunazko paisaia hau eratu arte. Ondotik etorri dira bizibide nagusiak: zurgintza, antzarakien merkataritza eta turismoa (surfkontuak barne).

Paradisua M.rentzat, surflari zahar betigaztearentzat. Olatuei gaina hartzea munduan egoteko modu bat da berarentzat. Ez da denbora luzea horretan hasi zenik, berrogeiak ondo aurreratuta. Bizitzak botatako enbidoei erantzuteko era sanoagoa beste batzuk baino. Honelako zerbait adierazten dio bere buruari itsaso gandortua jarkitzen zaionero: «Urezko horma hauek jaten ez banaute, hain gutxi lehorreko trangoek». Horregatik deitzen diot *marraxo* M.ri: marraxoak ez diolako inoiz uzten igeri egiteari, hilko ez bada; eta, zafraturikoen azal latza duelarik, kolko handiko gizona delako.

Leongo lakuraino heldu naiz bizikletaz, hamar bat kilometro. Haizea zebilenez, gogor eragin diet pedalei. Ortozik ibili naiz ur-hegian. Hondarra eta pinu-orratzak oin bustietan itsastea atsegin dut. M. nirekin balego, piragua bat alokatuko genuke, seguru, urmaela zeharkatzeko.

Hotel txiki bat dago, abegikorra. Betidanik gustatu zait, lehen aldiz ikusi nuenetik. Nire poema batez oroitu naiz. Poema horretan esaten dut inizial batzuk markatuko nituzkeela hondartzan, edo nire telefono-zenbakia auto baten kristalean. Hori idatzi nuenean, antzina batean, hotel honetaz pentsatzen ari nintzen hain justu ere: zita enigmatikoa egin, eta gela batetik ilunabar bat eta egunsenti bat ikusteko aukeraz, uraren izurrak more aurrena, eta gorri gero. Kolonia-iragarkietako neskaren tokia hartu izan dut gehienetan neure fantasietan.

KRISTALEZKO BEGI BAT METAFORA BAT ERE BADA

Zergatik hitz egiten dut honetaz guztiaz? Desafioa jarri diot neure buruari, editore batek bota zidalako amua aspaldi. Barregura eman zidan.

– Adarra jotzen ari zara? Ez zabiltza benetan.

– Pentsatu... Ea kristalezko begia edukitzeak zerbait inspiratzen dizun.

– Detaile horrek idazle egingo banindu, tira, baina... A! Metaforikoki ari zara, ezta?

– Ez, ez. Ez al du zure egunerokoan inolako eraginik begi bakarra izateak? Hitz egin ezazu horretaz, baina bizar-xafla bat erabiliko bazenu bezala.

– Enpagosoa naizela diostazu?

Gero, Castelaoren ipuina aipatu zidan, *Kristalezko begia*. Narratzaileak kontatzen du begi bat galdu zuela oilar batek mokoka egin ziolako.

Eta atzerago joanda, Jonathan Swiften poema satiriko bat, non Corinnari, merkatura zihoan neska panpoxa bati, bidean begia erori zitzaion eta lurretik batu

behar izan zuen (horixe ulertzen dut nire ingelesmaila oinarrizkoan).

Beste egun batean mezu bat bidali zidan, Curzio Malaparteren *Kaputt* gomendatuz. Lehen Mundu Gerrako bizipenen artean, aipatzen du presoei ateratako otzara bete begi erakutsi ziotela behinola ostatu batean.

Koldo Izagirreren *Sua nahi Mr. Churchill?* liburuaz gogoratu nintzen, Aitzolen pasadizoaz, fusilamenduaren bezperan Hidalgok begia lehertzen dionekoa giltza ingeles batekin zartakoa jota.

Geroago deskubritu dut Henri, Bonaparteren karismak harrapatu eta haren armadan danbor-jole izan nahi baina sukaldari izaniko nekazari gaztetxoa, Austerlitz inguruko estepa izoztuetan, bihotzaz aparte, begia galdu zuena. Jeanette Winterson da pertsonaia horren sortzailea (eta, bide batez esanda, honelako esaldi zuhurrak aurki litezke *Pasioa* izeneko bere nobelan: «Pasioa gustatzen zait niri, etsituen artean egotea gustatzen zait»).

Hor konpon galdutako begi literarioen adibide errealista horiek guztiak. Nire kasuan, kristalezko begiak dimentsio bikoitza du: bata erreala, neure identitate-marka delako (ez esan konturatu ez zarenik igar-

tzen zaidala zerbait, ezker begia normalean itxixeago daukat-eta); bestea, metaforikoa, nire bizitzako galera guztien adierazle orokorra izateko hautatu dudalako.

Ez dakit nora eramango nauen 2011ko irailaren 9an hasitako esperimentu honek. Ez dakit, ezta ere, zer epetara arte luzatuko den eta zer beste kontagai bilduko dituen. Urriaren erdietan gaude dagoeneko.

Kontuan hartzeko datu bat: Editore horrekin mintzatu naiz lehentxeago. Azaletik esplikatu diot gaia: «Pasio hautsi bat da ardatza, eta kristalezko begia, sinbolo bat. Badakizu, neure ezaugarri bat da, bizi izandako erauzketak adieraziko dituena. Adinaren kontuak-eta txertatu ditut».

Zapuztuta geratu naiz erantzunarekin: «Beraz, emakume zahar bati buruz idatzi duzu?». Pikutara bidaltzeko gogoa sentitu dut, hain neke izugarria eragin dit bere ikuspegiaren estutasunak. Ez zebilen ironiaz, edo zirikatu guran, ohi duenez. Aurrejuzgu espontaneo batekin debaluatu ditu nire pertsonaiaren ustezko prozesua eta gatazkak.

Akaso kaxoi bat izango du helmuga testu honek. Edo zaborrontzia: zaborra delako eliminatu beharreko materiala, gure jardunaren emaitza, zeinaren balioa hutsa den.

Hala ere, jarraia emango diot hasitakoari.

PLUSAREN TENTAZIOA

Lagun batek deitu dit. Ez daki non nagoen; galdetu ere ez dit egin, eta nahiago. Norbait behar du bere drama aditzeko, eta entzule adeitsuaren ospea daukat.

Azaldu dit goizean jausi egin dela, ez dakiela nola, bat-batean belauniko zegoela lurreko odola trapu batekin garbitzen.

– Badakizu, dena txukun lagatzearren irten baino lehen –esan du ironiaz, eta irribarrea atera dit–. Baina hori ondoren izan da, konortera etorri naizenean, eta pentsatu dut: «Zer koño egiten ari naiz?». Zonbi baten moduan joan naiz gelara eta esan diot gizonari: «Eman xukadera bat, odoletan nago eta! Bizkor!». Asaldatuta esnatu da, aurpegira balde bete ur bota izan banio lez.

Trapua aipatu didanean, auzoko espaloian agertu zen andreaz gogoratu naiz. Bata arrosa zeukan soinean, eta glassex poteak putzu urdina eratua zuen haren buru lehertuaren ondoan.

– Ez da bakarra –esan zuen kafetegiko bezero batek–. Trapua eskuan dutela botatzen dira, kristalak

garbitzean jausi direla antzeratzeko. Familiak asegurua kobra dezan, bai.

Bista beheratu nuen azalpen arrazional hark eragindako dartada disimulatzeko, eta kikararen ipurdian kafeak utzitako biribil zentrokideei behatu nien. Bide itxi baten itxura hartu nien, izen mitikoz beteriko labirinto batena. Adibidez, Sylvia, burua labean sartu zuena, seme-alaben gosaria prest utzi eta gero; Alfonsina, itsasoan barneratu zena irratira bere agurra bialduta; Virginia, berokiaren poltsikoak harriz beteta ibaian behera; Anne, garajean, autoaren karbono dioxidotan itota; Alejandraren seconal pilulak; Marina eta lepo-bueltako soka; Ingeborgen kandelak; Karin Boyer harkaitz baten gainean lo, xiringaren gozotan; Ana Cristina Cesar, eskopeta izan zen, ala saltoa gurasoen terrazatik?; Tove Ditlevsen, eta somniferoak berriz; Reetika Vazirani, hemorragia zain irekietatik; Florbela Spanca, Amelia Roselli, Danielle Collobert, Nilgun Marmara. Emakume horien heriotzek harribitxiek bezala egiten dute diz-diz: beren buruaz beste egin izanak gainezko eranskinez gabetzen ditu beren biografiak. Ondorioz, zertzelada orok hartzen du garrantzia.

– Esan diot ekartzeko xukadera bat komunetik, zorabiatuta nengoela... Eskerrak alabak lo zeuden. Zazpiak eta hamar ziren oraindik.

Lagunak hizketan jarraitu du. Zehatz irudikatu dut egoera: komuneko armairutxoan bikarbonatoa, ilerako gantxoak, ekzemaren aurkako pomada. Senarrak konketaren alboko xukadera hartu du. Ordurako, odolak orban nabarra utzi dio lagunari kamisoian, lehentxeago sukaldeko baietan utzi duen moduan (neuk gaur konpresan utzi dudan legez; baziren bost hilabete hilekorik gabe).

Hitz egiten ari zen bitartean, zorakeriak pentsatzen aritu naiz, ea suizidioak balioko lukeen nire biografia edota obra goratzeko, batari nahiz besteari plus bat emateko. Zorakeriak ba. Miseria, erbestea, gosea, norberaren kumeak umezurztegian utzi beharra, kontzentrazio-esparrua, ospitale psikiatrikoak, minbizia, estatuaren izugarrikeriak... benetan hutsik eta biluzik geratzea zer den bere haragian probatu ez duen fanfarroiaren simulazioak. Haiei ez zitzaien ezer geratu bizitzen jarraitzeko. «Bitik bat», dio Joumana Haddadek, «edo zure heriotzari ihes egiten diozu, edo bezatu egiten duzu». Edo ez.

Zein dira bizitzari eusteko jaseko irizpideak?

Zer heriotza aukeratuko nuke nik? Tren bati itxarotea tunel batean, errailen artean kuzkurtuta, fetu baten gisa. Titiko haurra lez jokatzen baitut min hau, patari erpedun baten antzekoa, sorbaldetara aupatzen zaidanean.

Igor Estankonak, *Anemometroa* liburuko poema batean, metafora argitsu bat eskaintzen du maitasun etsia deskribatzeko. Esaten du fulanita maitatzea azukrezko dorre batetik salto egitea bezalakoa dela. Azukrezko dorrea, maitasun dultze baina apurkorraren irudia, gailurra hartzen zaiona norberak garrez eraikitako aldamioaren bidez eta koldarkeriarekin bateraezinak diren arnesak erabiliz.

Bata arrosadun andreak (akitutako ama txit maite eta gupidetsia izango zen apika) Zabalbide kaleko bederatzigarren solairu batetik utzi zion amiltzen bere buruari. Ziega bat, edo eskailera kiribil amaibako bat zeukan hark bere baitan, inola ere ez eztizko pinakulurik. Nondik ateratzen du leihoaren ertzera ateratzeko kuraia, bizitzeko bultzadarik ez duenak? Nortasunez ezegonkorra izango zen agian. Edo gaixotasun sendaezinen bat izango zuen. Edo adin arriskutsuaren labirintoetako batean katigatuta geratuko zen. Bizitzak zentzua galduko zion. Edo hari aurre egiteko

behar besteko kalipua izatearen kontzientzia zen galduko zuena.

Lagunak ez nau ikusten adigalduta, bere sinkopearena baino erakargarriagoa den istorio paralelo bat asmatzen.

– Hamabi puntu, neska. Zabalik zegoen kaxoi bat jo dut, antza. Ospitalean esan didate tentsio-beherakada izan ote den, baina sinistu, tumoreen dokumental bat pasatu zait burutik. Pentsa, egiteke dauzkadan zereginak apuntatzen hasi naiz paper batean, notarioaren telefonoa bilatu dut agendan, alabentzako gutun baten zirriborroa ere egin dut...

Zergatik emakumeon antolamendurako bokazio hori, eta norberetarrak babesteko sena beti ere beti?

Neure oinei begiratu diet. Malkar horizontal batean irristatzen ari nintzela iruditu zait. Aldi berean, pentsatzen hasi naiz ea zer bururatuko litzaidakeen niri garbitzea: kristalak, lanparak, edo ganbara. Ordenagailuaren disko gogorra, hori bai hustu beharko nuke.

Gezurra diot: sekula ez dut idatzitakorik botatzen. Gorde egiten dut dena, noiz edo noiz lerro noragabeek kokaguneren bat topatuko dutelakoan. Idazkera me-

tamorfiko horrek jabaldu egiten nau, orri zuriak botatzen didan demari baietz esatera adoretzeraino.

– Sartu zaitez ohean aldizkari batekin, hartu atseden, mimoak erreklamatu... –aholkatu diot lagunari.

Badakit lelokeria bat esan diodala. Badakit tontakeria ugari pentsatzen ari naizela. Badakit ezdeuskerian nabilela kontakizun bat gauzatu nahi izateagatik oinarria neure gaitzak izanik.

Agur esan diogu elkarri. Ingurura begiratu dut. Gero neure oinei behatu diet berriz. Izoztuta dauzkat. Lurra jo dut orpoekin, segurtatzearren, beste behin ere, dagokidan tokian nagoela.

SAGUTERAN

Lau eta erdietarako iluntzen du. Udazkenak Landetan ez dauka zerikusirik ezagun nuenarekin. Itxaroten nuen hori. Gauak eta egunak ezin luzeagoak dira. Isiltasunak ematen duen baketik hara, bakardadearekiko larderia da topatzen ari naizena, erretasuna. Nik neuk prestatutako saguteran harrapatuta nago.

Ez zaizu sinesgarria egiten honenbesteko tormentua? Honelako estrabagantziak eta hortik gorakoak izaten ditugu, bada, engantxatuta gaudenean (beste kontu bat da nola ikasi auzi hauek beste modu batera ebazten). Ez duzu nahi nik aitortzerik M.rekiko hau dela zerik indartsuena nigan. Irakurri nahi duzu badudala beste pasio bat, handiagoa eta sakonagoa: idaztea, esate baterako. Hori egitea aurrera ateratzeko borondatea indartzeko era bat da, zure ustez.

M.k beste bi aldiz deitu dit. Arduratuta bide dago nigatik. Odolaren burrunba igarri dut belarrietan. Ez nauela behar nik bera beste, hori sentitu egiten du

norberak. «Ez zara haserre egongo» esan dit. Bion arteko koxkak hortxe dirau, gorri.

«Idatzi mezuren bat noizean behin, behintzat» eskatu zidan azkenengoan. Barre-karkaila mingarra egin nuen. Nireak bezalako mezuak ez dizkio inork bidaliko, hori seguru. «Otartekoa jateko orduan errepasatzen ditut zure mezu zaharrak, fabrikan bertan, edo lotaratzean. Berrehunetik gora dira, Meibi, berrehun lore». Badirudi ez naizela erabat izan mirabe hura, Sulem herriko neskatxa, erregeari urrutitik begiratuta koplak jaurtitzen zituena airera, alferrik, petaloak bezala, hitzak.

NA NGA DEF, XARIT?

Atzo atean jo zuten. Oker aditu nuelakoan, ez nuen kasurik egin. Berriz deitu zutenez, leihora agertu nintzen. Senegaldar bat zegoen behean, poltsatzarra sorbaldatik zintzilik.

Kafesnea hartu genuen elkarrekin, sukaldean. Esan zidan atez ateko salmentaren bidez emaitza hobeak lortzen dituela. Busean ibiltzen ei da herririk herri. Wolof hizkuntzan berba batzuk zelan esaten diren galdetu nion:

– Ça va, mon amie?

– Na nga def, xarit?

Bere bizitzaren laburpena egin zidan. Irribarre beroa zeukan. On egin zidan.

Galtzerdiak hartu nizkion, semearentzat. Eta eskumuturreko bat, indiar kutsuko kinkila-pieza bat, esmalte marroi eta arrosak, loreak eta elementu geometrikoak konbinatzen dituena. Kapritxoak bertatik bertara erostekoa ez naizen arren, ez nuen birritan pentsatu, Janisen erretratua zeukalako: txoritxo totolo bat adar batean pausatuta. Ez zitzaion falta ezta forêt landaiseko pinaburua ere. Txoria lasai dago adarrean,

mokoa itxita. Haren begia puntu ñimiño beltza da. Inpresioa eman zidan, ipuinetako animaliek egiten duten bezala, neuri adi zegoela, zain bezala, zerbait erakutsi nahian.

OKULARISTIKAREN HISTORIA LABURRA

Aurrekariak aurrekari, esan liteke XVIII. mendean hasi zela okularistikaren espezializazioa, Frantzian lehenik eta Alemanian geroxeago.

Auguste Boissonneau hartzen da okularistikaren aitatzat. Hainbat materialekin egin zituen probak begiak egiteko, kristala izanik pazienteek hobekien toleratzen zutena. Haren lanak erabateko eragina izan zuen zientzia horren garapenean, halako eran non XIX. mendearen hasieretan, zirujau alemanek esperimentazioa bultzatzeari ekin zioten frantziar monopolioari produktu nazional baten bitartez frenoa jartzeko asmoz.

Bazen Turinga-Lauscha eskualde ederrean gazte bat, lanbidez beira-putzegilea zena. Ludwig Muller-Üri zuen izena, eta panpinentzako begiak egiten zituen. Egun batean, frantziarren teknikak kopiatuz eta bereak aplikatuz, aurrerakuntza nabarmena lortu zuen protesigintzan. Sari asko eta asko eman zioten mundu mailako erakusketa zientifikoetan, eta haren eskutik

sortu zen giza begi artifizialen lehen lantegi alemana: Erstes deutches Atelier für Künstliche Menschenaugen.

Ludwig baino begikoagoa dut, alabaina, Auguste frantsesa, lan-bidaia ugari egiten zuelako Europan barrena han-hemengo bezeroak artatzeko, zibilak nahiz armadakoak. Semeak ere laguntzen zion. Makina bat artikulu eta liburutan eman zituen jakitera beraren ezagutzak. Titulu bat aipatzearren, *De la restauration de la physionomie chez les personnes privées d´un oeil ou Exposé d´un nouvel oeil artificiel à double échancrure interne* (Paris, 1858). Gainera, naturalista ere bazen, ornitologoa. Hainbat txori mota identifikatu zuen.

XX. mendean, ordea, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Estatu Batuak nagusitu ziren arlo honetan. Begigintza akrilikoa abiatu zen, oeil de verre usadiozkoei lekua kenduz.

ISPILUA

Liburu baten azalari begira nago, *Damen hiria,* 1405ean Christine Pizan-ekoak idatzia. Egileak hiri menderaezin bat deskribatzen du, haren harriak iraganeko emakumeak direlako; eta hiriaren eraikuntzari amaiera emateko erabilitako materialak, mortairua eta tinta. Anastasiak (Frantziako gorteak Christineren esanetara jarritako marrazkilaria) eginiko irudiak arreta piztu dit.

Errenazimentuko dama bat ageri da kaballete baten aurrean jarrita. Ezker eskuan ispilu bat dauka, eta aurpegia islatzen zaio bertan; eskuin eskuarekin pintzel bati eusten dio. Andreak bere erretratua pintatzen dihardu mihisean.

Hiru aldiz agertzen da, horrenbestez, andrearen irudia: subjektu gisa eserlekuan, eta objektu gisa ispiluan eta pinturan. Isla-joko hirukoitz horretan, ideia hau berretsi dut: autobehaketa sorkuntzaren abiapuntua eta xedea izan litekeela. Halaber, artearen izaera ispilatzailea ere iradoki dit, behatzailea eta behatutakoa identifikatzen diren unetik.

Badira pintorearen eskumenera ontzitxo batzuk pigmentuz beteak, zurezko kutxatila bat, estiletea, eta tresna bat, hasieran bereizi ez baina orain garbi ikusten dudana: beste ispilu bat, eskukoa bigarren hori, kirtenduna, mahaian pausatua azpikoz gainera. Ispilu horren ifrentzuan distira zehazgabe bat azaltzen da, urdin ilun, zuri eta gorrizta, hala baitagokie koadroaren atzealdeari, emakumearen azalari eta haren tunikaren koloreari. Mahaian artagabe utzitako mirail horrek ere, beraz, egilea tentuz eta arduraz eraikitzen ari dena islatzen du, aldez edo moldez.

Andrea azken ukituak ematen ari zaio erretratuari, pintzel-muturra bermatuz, ez irudiaren ilean, ez bekokian, ezta bularrean ere, baizik eta ahoan, hitzaren konplizean. Analogiaz, nire begiak interpretazio naturalak esleitu dizkie eszenako elementuei: mihisea idazkuntzaren esparrua da; margoen ontzitxoak, idazkeran eragiten duten datu biografikoak; estiletea, adieraziaren nahiz adierazlearen soberakinak arazteko erabakimena; zurezko kutxatila, iraganeko bitxien edo memoriaren gordailua.

Ispiluan bere burua aztertzen ari den pintorearen jarrerak erakusten dit xehetasunez aditu behar diodala neure izateari. Begiradak eta buru pixka bat makur-

tuak ezer lehiatzen ez duenaren baretasuna ematen didate aditzera. Hauxe besterik ez du (dugu) gogo: geure burua ikustea eta den-denean ikusaraztea.

Eta zer adierazten ote du alderantzika dagoen ispiluak? Errealitatea erdizka baino ez islatzeko gaitasuna. Edo, agian, kontzientziaren ispiluaren bitartez ikusi ezin dezakeguna. Edo biografiaren eta oskol genetikoaren erruz ikustera iristen ez garena. Edo benetan ikusi nahi ez duguna. Beharbada, ispilu hori besteak dira, garenaren irudia osatzen dutenak. Asaldagarria erabat zeharkako ispilu horren esanahia.

Jakitun naiz egiten ari naizenaz. Minari aztarrika nabil, etekina atera guran.

Ez dut sekula atzera egin neure zauriak milikatzeak errenta batzuk eman izan dizkidala ametitzerakoan. Eta oraingoan ere kritika nazakezu, esanez damisela pairutsuaren papera jokatzen ari naizela, eta kalamatrika honek terapia-lan bat dirudiela, edo erreality-show baten bertsio idatzia.

Orobat, ez dut burua zuloan sartuko, aurpegiratzen badidazu eredu zaharkitu baten arabera ari naizela: saminean edertasuna topatzea zen gure aurreko

emakumeen bekatua, amorrua onarpen bihurtzea bezainbesteko akatsa. Sentimentalismoari izkin egiteko saioak ezerezean geratzen zaizkit bitik batean. Eta agerikoaz jarduteak ez du merezimendurik (lotsagorritu egiten nau nire gogoeten eskastasunak, hori nik neuk aitortzen dizut).

Zenbateraino naizen ondradua hainbat zertzelada nahita isilduta, hori neuk dakit: erara ez datorrena aurreztu egin behar da; eta kontrara, izatez txikikeria dena emendatu, sailera etorriz gero, edo jakingogoari eusten laguntzen baldin badu. Horretan konforme egongo zara.

Horregatik diotsut testu hau ez dela kai, zubi, itsasargi, etxe edota errepide bat, zimentarriak porlana eta burdina nahasiz egin zaizkiona, kristalezko ispilu bat baizik, markoa patchwork estilora egina.

Zati solteak jostean datza patchwork teknika; ez nahastu matriuskaren kontzeptuarekin: errusiar panpinatxoak bata bestearen barruan gordetzen diren moduan, sortzailea ere ezkutatu ohi da bere lanaren geruzetan barrena. Ni ez. Idazle askok arrastoan eutsi ohi diote beren irudiari, irakurlearen begi depredatzaileei bazka ez emateak bermatzen duen immunitateaz jakitun. Nik ez.

KRISTALEZKO BEGIAK PATOLOGIA KONGENITOEN KASUAN

Okularistaren itxarongelan bezeroak franko egoten gara, bada.

Behinola negar-zantzo itzelak entzun nituen, haur batenak. Beldurrezko txilioak ziren, aurrez galdutako istiluak sortutako laborria lantu bihurtuta. Geroxeago ama-haurrak atera ziren, haurra amaren sorbaldan burua eskoratuta, leher eginda. Ez zituen hiru urte izango. Nire txanda zen jarraian.

– A zer gaizki pasatu duen gaixoak –esan nion medikuari.

– Begirik gabe jaio zen.

Hamar milatik bati gertatzen zaio mikroftalmia izeneko malformazio kongenitoa. Fetuari ez zaizkio begiak garatzen, ez betazalak ezta malko-guruinak ere. Jaioberriari begiek ez diote ezertarako balioko: bi botoi-zulo opaku izango dira beti. Baina buruko hezurren hazkundea guztiz bukatu arte ezingo zaio kristalezko begirik jarri. Konponketa erradikal hori beharrez-

kotzat jotzen dute adituek pertsonaren sozializazioari begira.

INOIZ UTZI EZ NAUENA

Aldika, amets onak izaten ditut, kontserbazio-senaren mesedea. Babes mengela, baina balekoa beila-aldietarako. Bart amarekin egin dut amets. Laster beteko dira hamar urte hil zela. Ametsean, soineko bati botoiak kentzen ziharduen (arropa-denda bat gobernatu zuen bere denbora osoan).

– Soineko estuegiak konpontzeko erremedioetako bat –esan dit–. Zenbat eta botoi gutxiago, arnasa zabalago.

Berrogeita hamar urte inguruko ama ikusi dut, ez heriotzaren orduko emakume zarpaildua.

– Jakina aurrera aterako zarela – jarraitu du–, neure alaba zara eta.

Zortzi bat ordu egin dut lo gaur, lehenbizikoz uztailetik.

Joyce Carol Oatesek, *Ama* izeneko nobelan, esaten du amen patua gogoratzea dela. Gogoratzen dutela beraiek ez beste inork dakitena, baita beste inori axola ez zaizkion kontuak ere. Kontu horiek, amak badoazenean, eurokin doaz: itsasaurrean zure tokia markatzen zuen tuntuxa desagertu egiten da, nola-

bait. Nor gogoratuko da, bestela, eskolara hasi berritan salako horman egindako zirriborroaz eta zer txokotan egin nuen zehatz-mehatz; edo noiz kendu nion txanpon bat diru-zorrotik baimen barik. Amak dira umezaroaren memoria.

– Bizitza mingotsa denean, koilarakadaka irentsi behar da, botikak lez.

Amak bere erara interpretatzen zituen penak, eta kontsolabide zuen pentsatzea nahigabeek, gerora, ongi klaseren bat ekarriko zigutela. Ez zegoen ohituta, bere garaiko asko bezalatsu, nahi zuena egiten, egin beharrekoa egiten baino.

Neuk aditu gura nuena esanarazi diot:

– Estu ibiliko zara, baina ez zara itoko.

Begia galdu nuenetik, ni itsu geratzeko beldurrak adorea mamurtu zion. Adore karrakatu haren hondarrekin eraikitzen zuen amak alaitasun xalo bat, umetxoek plastilina-papur eskuztatuekin pilotak egiten dituztenekoa bezala. Bazeukan zergatik ernegatu: amaginarreba itsua zuen. Begietako bat istripuz galdu zuen, sukaldeko sabaitik karea askatu eta begia erre ziolako; bestea zahartzaroan galdu zuen, hipertentsioaren ondorioz. Harengandik jasoko nuen glaukoma, berbarako etorria beste. Amuma horren seme ertaina

zen begia petardoak atera zion nire osaba hura (parodia bat irudi lezake kointzidentzia mordoak, baina aipatzea pertinentea delakoan nago).

Amak erromesaldian erabili zuen, oftalmologiaren tenpluz tenplu, bere alabatxo betitsusia, atzeraezineko erabakia hartu behar izan zen arte: begia erauztea. Alabaina, gauza segurua da aspalditik nintzatekeela itsua amak azken kontsulta batera eraman ez banindu, ordurako gogoz kontra joaten bainintzen, konponbiderik gabeko diagnostiko bera entzutearekin gogaituta. Begi eria sendatuko ez zitzaidala toki guztietan esaten zidaten; ez, ordea, begi sanoa galtzeko arriskua hurbil nuenik. Erdi jostuna izanik, sinpatia baldin bazion Santa Luziari, handik aurrera debozio beroagoa hartu zion amak.

Enukleazioaren osteko oroitzapen saminena, horregatio, ez da kotoizko tapoitzarra begi-zuloa butxatzen, zunda baizik, bi erizain dorpek hodi zurrun hura pixa egiteko tokitik sartu nahi eta ezinean egin zidaten Iardaska. Gerora barre egiten genuen Zaragozako klinika hartako jazoerak gogoratzean.

Amak denari eutsi zion, sendoa izan gabe. Bart esan dit:

– Izan fedea.

Ume bati ematen badiozu atzamar bat, oratu egingo du, harentzat haragi puska hori munduak luzatutako soka baten antzeko zerbait delako. Amarekiko ametsak ulertarazi dit ez dagoela aurretiazko patroirik gure bizitza izango denari forma emateko. Collage bat dira dagozkigun gertaerak, osatzen den heinean zentzuz betetzen den historia orokor baten atalak: zatiak josi ahala grazia hartuz doan soineko bat da bizitza. Esker oneko sentitzen naiz lilurapen bat errealitatean ibiltzeko makulutzat erabiltzeko dudan gaitasun honengatik.

Galderak: Amari buruzko erreferentziek behar bezain agerian uzten dute emakume ereduzkoa izan zela makaltasunaren eta kemenaren arteko muga-lerroa ezerezteko baldintza nagusia egonarria dela irakasteko orduan?

«Ama» gai errepikaria da nire obran. Testu hau argitaratuz gero, dejà-vu errax baten inpresioa eman lezake, edo obsesio batena, hutsune betegaitz baten isla. Ez dut uste hori denik. Alta, zilbor-heste psikologikoa ez moztea neure buruari maitte-maitte egiteko modua da, azken finean.

ORBAINAK ETA BESTE

Beharrezkoa da denborak memoria usteltzea iraganari buruz hitz egin ahal izateko. Oroitzapenak hartzitzen direnean hartzen dute distira (aipatzeko pisua) pasadizo arruntek.

Arropa-denda geneukan Goikokalean. Denda ilun eta luzanga zen, zurezko arasaz hornitua. Aurrean iturri bat zegoen, data idatzita zeukana: 1888. Hantxe edaten genuen umeok gure joan-etorrien atsedenaldietan.

Umetan lilura sentiarazten zidaten hortzetako aparatuek eta txertoen markek. Orbainak izan nahi nituen azalean. Bizipen gomutagarriren bat pairatu duenaren seinaletzat nituen, norberak esku-hartzerik izan ez duen abentura basatien lekukotzak zirelakoan. Miraz begiratzen nion, kasurako, lagun batek belaunean zeukan marka zatarrari.

– Gaseosa-botila bat lehertu zitzaidan –azaltzen zuen berak, harro.

Amari eta beste emakume batzuei udan beso biluzietan ikusten nizkien txertoen orbain biribilei haragizko ilbete nanoak edo talo txikiak irizten nien. Erizaina-

ren papera hartuta, neure panpina kutunenari egiten nizkion markak bekokian eta besoetan, boligrafoz. Marrazturiko orbain haiei esker nagusiagoa begitantzen zitzaidan. Pentsatu gabe, haren azalean inprimatu nituen munduak arestian niri sortu gabeko arraildurak, gerora nire nahas-mahas literarioetarako aitzakia gertatu direnak.

Behin batean botikin bat oparitu zidaten, skayzko maletatxo bat, tapan gurutze gorria zuena. Jostailu hark geu bilakarazi gintuen jakinguraren jostailu: artazitxo zilarkarak, fonendoskopio beltza, bendak, pilulakonfiteen kaxatxoa, gomazko orratzak, ezin kilikagarriago gertatu zitzaizkigun gure gorputzak aztertzen hasteko. Gure lehen sexu-esperientzien parte izan zen botikin hura (beharbada horri zor zaio gaur egun ere nire fantasia erotikoetako bat, azterketa medikoa). Dendaostean jolasten ginen, biltegian, uniforme urdin eta galtzerdi zuridun neska koskorrak. Eskolatik irten eta batera, amari musua eman eta mostradorepetik merienda hartuta, denda zeharkatu eta atzealdera joaten ginen. Atea ixte hutsak areto pribatu bilakatzen zuen gelatxo zaharra. Bezeroak zebiltzanean amak ezin zigunez kasu handirik egin, eta bestela ere izaten

zuelako lanen bat esku artean, baketan egoten ginen han.

Behegainean pilatuta ehunak egoten ziren, metroka saltzen zirenetakoak, kartoizko xafla laukizuzenetan bilduta. Serioak ziren gehienak, mahoizkoak edo dolu-jantzietarako estanpatu soilak, baina bazen bat bereziagoa, koltxoi-zorroak josteko oihal bat, lore zurigorriduna, alde batak bestearen negatiboa egiten zuena. Huraxe erabiltzen genuen angarilatzat gure jolasetan. Akorduan ditut eskolakidearen eskuak paparrean gora eta behera eta titi-puntetan geratzen, oraindik tontorrik ez zeukan bular lauan. Gogo onez obeditzen nien aginduei: «Atera mihia» edo «Zabaldu hankak» edo «Ukitu nire zilborra». Gogoan ditut, baita ere, plastikozko artazitxo puntamotzak ipurtzuloan sartuta, edo gazatxoa izter artean sakatzen, zauri bat sendatu nahian bezala, artean ezinezkoa zen umeltasunen bat lehortzeko gisan.

Esanekoa nintzen arren, banintzen, tarteka, marimaistra; harroputza ez, buru-iritzia; apetatsua ez, petrala bai; mainontzia izan gabe, pupu samarra. Nago apaltasun-lezioa izan nuela begiaren endekatzea. Ha-

mahiru urte bete zituenetik, neska txiki politak onartu behar izan zuen bazuela inori atzera eragin ziezaiokeen zerbait aldean. Ilunaldietan ahapeka errepikatzen nuen esaldia («arrunta banaiz ere, berezia ere banaiz») jakulatoria bat zen nire psikearentzat, orbainak haragiarentzat minaren berrespena diren bestean.

Norberari dagokio izorragarri zaiona kudeatzeko trikimailuak garatzea.

Amabitxi zendu zenean, apiril hartan, bederatzi urte nituela, etxeko salan eduki zuten hilkutxa, lau zuziren erdian. Senide guztien isilean, berak sarritan altzoan izaten zuen Ama Birjinaren alabastrozko irudi bati kandela-negarra isuri nion begietan, tak eta tak. Bi argizari-tanta haiek, begiak estaliz amabitxiren begi itxiekin bat etor zitezen, agur esateko modua izan nituen.

Gaztetxotan, lagun bati aitortu nion zein mutil nuen gustuko. Hurrengo berbenan, laguna moldatu zen harekin zirrika amaitzeko. Ahoan metxa sartuta leherrarazten duten katakumea legez sentitu nintzen. Begiak zulatu nizkion lagunari argazki batean, orratz

batekin. Gaur egun ere, inoiz kalean topo egiten badugu, ez nau ikusten, eta neuk ere ez dut ikusten bera.

Duela hilabete inguru, giltzarekin zanpatu dizkiot begiak autoaren ispilutik zintzilik neraman pelutxezko marraxoari. Krak eta krak, begitxoak caput. Makarroi zanpatuen hotsa egin zuten. M.ren alter ego horrek orain ez du ezer ikusten, eta ez du dantzan egiten bidean. Behar duen moduan dago egon ere, neu bezala.

Horiek izan dira, besteak beste, begia begi truk egiteko nire modu sekretuak. Erritu txoroak aitortzera animatu naizen unetik, pentsatzekoa da balio izan didatela abandonuaren angustia, traizioaren amorrua edota ezintasunaren mendretasuna sublimatzeko. Trantze gaiztoak gailendu izanaren seinalea da zauriei zarakarra altxatu eta aire zabalean orbaintzen uztea; kasu honetan, hitzetan ematea.

TXORIAK, HOTZA ETA HEGAL HAUTSIAK

Hotz egin du egunotan. Teilatuaren karelean izotz-gingilak eratu dira, eta lurra zapaltzean antzigarra ozen kraskatzen da. Haize zakarrak alderoka narabil uneka. Otabarrak ere askatuko dituela ematen du.

Buelta eman diot Port d'Albreteko itsas lakuari oinezkoentzako bidexkatik. Zati batean tamarizak daude. Sahatsarekin batera, tamariza dut zuhaitzik gogokoena, adaburu korkoxak euri-lanbro berde mehea dirudielako. Arbola biok ala biok ez gora ez behera izaten dituzte adarrak, gora-nahian makur egin-da (gutako askoren antzera). Esku artean igurtzi ditut hostoak, nerbiazioak azalean markatuz, eta usaindu. Lagin bat sartu dut bizkar-zorroan neraman liburuan.

Inoizko txori gehien ikusten ari naiz. Zail dute jana aurkitzea, eta horrexegatik hurbiltzen dira hainbeste bidera. Hotzak kikilduta, ez dute ikaratzeko indarrik ere. Zozo arra ikusi dut lehenengo. Aurrerago, birigarroa barraskilo bati mokoka, oskola zartatu nahirik barrukia jateko. Begira geratu zait, zirkinik egin gabe,

tita nabardun bular zuria erakutsiz. Ez du ihes egin bere erronkari eutsi behar ziolako (nik neureari bezala). Ibaiadarrean kurlintak zeuden. Ez dabil arimarik.

Pasa den udaberrian, txantxangorri gosetu bat Karraspiora jaitsi eta M.ren autoan sartzen zen, fidakor. M.k intxaur-birrinak ematen zizkion.

– Zeure antza dauka –esan zidan telefonoz–. Adiadi egoten zait, eta baketsua da.

– Neure totema izango da, Bilbotik bidali dizudana, zeu zaintzeko.

– Baliteke: zeure kolorea dauka, eta ipurdira begiratzen dit uretan sartzeko biluzten naizenean.

Gero, hotsitz bat xuxurlatzen zidan... txit, txit, txit. Busti egiten nintzen entzute hutsarekin. Piztu, besterendu, birloratu.

M.k eskilasoen lumak ekartzen zizkidan basotik. M.k zapelaitz bikotearen habia erakutsi zidan Endaiko labarrean. M.k irlako pinu batetik jausitako belakumea bueltatu zion amari. M.k aparailu batean nahastuta ia itoan zegoen kalatxori bat libratu zuen, pitaria hortzekin ebakita. M.ren besoak bi hego iruditzen zitzaizkidan altzoan hartzen ninduenean eta, orain, bakoitza geure zerupean gabiltzala, hotzak elbarritzen dizkit

hegalak. M.k ez daki ezer Janisi buruz. Ni ez naiz M.ren eskuan apurrak jango dituen txoria.

Dunen goialdean kartel bat argitu da. Haraxe jo dut porlanezko aldapa batean gora. Gazte jendea zegoen barruan. Bertan afaldu dut, lehen aldiz hona etorri nintzenetik: muskuiluak landatar erara. Alde egiteko zutundu naizenean, nor edo nork agurtu nau bazter batetik. Hasieran ez dut ezagutu.

– Zer moduz kalendulak? Bizi dira?

Simonek boneta jantzi du eta elkarrekin atera gara. Ia ama-alabak ematen dugu.

– Non sartu zara? Ez zaitut inoiz ikusten.

Lagunak bagina bezala hitz egiten dit.

– Liburu bat idazten ari naiz.

– Hara! Zeri buruz?

Izenburua esan diot. Damutu zait, esan eta batera, egoera esperpentikoa sortu baita.

– Magiari buruzkoa da? Pitonisaren bolak ez dira kristalezko begiak?

Purrustada mingatza atera zait. Ezin jakin serio zebilen.

– Esan dezagun self-imitation bat dela.

– A, bon!... Ez zaizu asko igartzen... Zeuk esan didazulako...

Baina urduri jarri da, eta argazki-kameren lenteak eta Gabonetako bolak eta ur-burbuilak, batek daki zenbat asoziazio egin dituen tropelean. Ideia erabilgarriak. Hobe apuntatu banitu. Nire etxe parera heldu garenean, patxo bat eman dit ezpainetan. Gero, bere zigarretaren distira ikusi dut zuhaixken artetik urruntzen.

Bost dei nituen telefonoan: hiru aitaren etxetikoak, beste biak Bizkaiko prefijodun zenbaki batetik eginak. Beste dei bat. Osaba.

– Baina non zabiltza?

Errietaka hasi zait. Behar nautenean eskuar ez egoteagatik egin dit agiraka. Bere senetik irtenda dago. Ez du ulertzen zertan nagoen halako bolada luzean kanpoan, areago semea utzita. Eta eurak, neure zaharrak.

– Aita jausi egin da kalean. Anbulantzian eraman dute.

– Nor dago berarekin?

– Nor? Inor ere ez. Neure burua gobernatzearekin nahikoa daukat nik.

Arropa batzuk eta koadernoa sartu ditut poltsa batean, erremuskadaka, Galdakaorantz abiatzeko. Janis ere hartu dut, Simonek zainduko zukeen arren, eskatuz gero.

Sukaldeko paper-erroilua ia amaitu egin dut bidean, malkoz eta mukiz bete ahala. Alboko jarlekuan nekarren. Praktikoa da zelulosa, inorena ez den esku leuna. Amorruaren erretena izan da negarra, eta neure buruarekiko penarena. Ez litzateke zaila istripu bat izatea, otu zait autopistan, logurak menderatu nauela itxuratzea. Baina ez, aita nire zain dago. Eta etzi semea besarkatuko dut. Hamabost urte baino ez ditu.

Irratia entzuten etorri naiz. Albiste handia gaur, urriaren 20an: ETAk behin betiko utzi du borroka armatua.

Goizaldeko ordu bietan iritsi naiz ospitalera. Besoa apurtu du aitak. Buruko traumatismoa da kezkabidea, hala ere. Odola atera omen zaio belarrietatik, eta alerta egon beharra dago barne-isuriren bat dagoen argitu arte. Zurrungaka ari da, kalmanteak hartuta. Gorro-

to ditut agurearen zurrungak (eta zer ez, batzuetan). Sentimendu hori itotzea dagokit orain.

Heldu da Dena Egiten Dakiena, ez dakit nork esan zuen bezala. Hogeita lau ordutako erizain, idazkari, gidari eta sukaldaria. George Eliot etorri zait gogora aitari bekokian musua eman diodanean: «Emakume baten zoriona pastel baten modukoa izatea da, errezeta fijo baten arabera egina». Sekula ez naiz gari-metako txoria izan, baina zakutik ematen dit inor nire pentzudan hartu behar izateak, noiz eta neu ere hegala hautsita nagoenean, hezur guztiak osorik izan arren.

MONOFTALMIA ETA EGUNEROKO BIZIMODUA

Lan-araudiak ez du debekurik jasotzen begibakarrak ezein lanbidetan jarduteko, behar besteko gaitasuna frogatuz gero.

Tartalo eta Polifemo. Christian IV.a Danimarkako erregea. Ana Mendoza, Eboliko printzesa (esgrima-ariketa batean galdu zuen begia, edo keratitis sifilitikoaren kausaz, iturrien arabera). Gregorio Alexandrovitx, Potiomkin kondea. Anibal Barca, Kinto Sertorio, Wenceslao II.a Bohemiako erregea, Horatius Nelson eta Blas Lezokoa (guztiek batailetan). Luis de Camoes, *Os Luisiadas* epopeiaren egilea. Nicolas Jacques Conte fisikaria (hidrogeno-leherketa batek eraman zion, esperimentu batean). Marconi (auto-istripu batean). Peter Falk eta Rex Harrison aktoreak. Raoul Walsh eta John Ford zine-zuzendariak (lehenengoari erbi bat atera zitzaion errepidera, film baterako kokalekuen bila zebilela; bigarrenarena ez dago garbi: partxea begi batean nahiz bestean erabiltzen omen zuen, nabarmenkeria hutsagatik, mihi gaiztoen esanetan). Sammy

Davis Jr. musikaria. Moshe Dayan israeldar ministroa. Zenbait artelanetako modeloak (esaterako, Picassoren *Atsoa* eta Frantziako eskolako *Flauta-jolea*, 1566koa). Garfio. Zonbi batzuk. Maria de Villota, bat formulako pilotua (lasterketa batean). Padilla toreroa (zezenak atera zion). Daril Hannah *Kill Bill*-en. Helen Parker, Haar, Solidus Snake eta Demoman, bideo-jokoetako pertsonaiak. Tuerta de Luxe, Facebookeko puta bat.

Begi bakarra izatea defizit bat da, bistan da (harira dator hitz-jokoa, barkatu errazkeria). Horregatik, begi bakar batek halako bi balio ditu (harira dator esamoldea).

Erdi Aroan uste zabala zen edozein jakintzaren sarbidea zentzumenak zirela. Hortaz, izan ziren goimailako eztabaidak, ea gorrak ala itsuak, nor ziren dohakabeago. Begibakarrei dagokienez, ez zituzten izaki baliogabetzat hartzen, baina ezta guztiz normaltzat ere (eta superstizioak tartean, zorte txarraren ekarletzat ere jotzen zituzten). Nolanahi ere, kasuan kasu eta egokitze-aldi baten ondoren, begibakarrok bizimodu normala egin dezakegu. Muga fisikoak eragindako oztopo batzuk garaitu behar horretarako.

Esaterako, aparkatzea. Garajeko atetzarra ireki, pare bat solairu erdipurdiko argitasunarekin jaitsi, zutaberen bat alboz ukitu ez eta autoa arraiatu gabe bere tokian uzteko maniobrak solturaz egiten ez da ikasten gauetik goizera. Distantziak kalkulatzeak badu bere zera, metro bat dagoen tokian erdi ikusten baitu begibakarrak. Hori dela-eta, gidabaimena bi urterik behin berritzera behartuta egon gara, arau hori orain-tsu aldatu badute ere.

Beste adibide bat, likidoak zerbitzatzea. Gizalegeak gaitzetsi arren, gure taktika izan ohi da botilamuturrarekin kopa ukitzea, ardoa barrura doala segurtatzeko; osterantzean, hasierako zorrotadak mahaizapia zikinduko du ehunetik laurogeita hemeretzian.

Arrazoi beragatik, begibakarroi zaila egiten zaigu palan jokatzea; eta lursail harkaiztsuetan behera jaistean, makurtu eta harriak haztatu beharra izaten dugu, oinak kokatzeko. Halaber, 3D formatuko filmek ez dizkigute publikoak txalotzen dituen sentsazioak eragiten.

Gerta liteke limitazio fisikotik limitazio psikologikoak sortzea: batetik, esandako moduan, orotara ikusteko urritasunaren ondorioz psikomotrizitatea trakesten denez, jokoan sartzen da norberaren izaera, zailtasu-

nekin koldartzekoa ala proban jartzekoa den; bestetik, nahiz eta begibakarra eta betokerra gauza bera ez izan, begibakarra betoker bihurtzen delarik, ez da milagro pertsonaren autoestimua flakotzea.

Egon al zara inoiz kristalezko begidun baten aurrean? Edo begian akatsen bat duen norbaiten aurrean, derrame txiki bat edo estrabismoa? Urdurigarria da. Jendeak beti hitz egiten dizu begiari begira; nahi gabe ere, begiak begira jotzen du. Eta zeu bazara harantzago dagoen norbaiti hitz egiten ari zaiona, burua jiratuko du, ea berarekin ari zaren ala norekin.

Kristalezko begia duenak ezin ditu begi bien ardatzak puntu berera zuzendu.

ZORROZTEA, AHOBERRITZEA

Jaurlaritzako abisu bat neukan gutunontzian. Euskadi saria eman diote *Errepidea* kontakizunari (hamahiru urteko neska bat da protagonista eta, berarekin batera, txoriak narratzaile. Txori horiei guztiei buruzko azalpenak M.k eman zizkidan liburua idazten ari nintzela, baita izar multzoei buruzkoak ere). Sariaren berriak ez dit apenas zirrararik eragin. Albistea M.rekin konpartitzeko gogo bizia, horixe sentitu dut.

Osteraka ibili naiz: dutxatu, arropak aldatu, mokadu bat jan, Janisi kasu egin eta, ziztuan, berriz ospitalera.

Aita zaindu bitartean ohar batzuk egin dizkiet orrioi. Ezin gehiago aurreratu. Kandinsky dixit: «Artista ez da libre bizitzan; soilik artean». Kar-kar-kar.

Bosgarren egunean eman digute alta, arritmia kontrolatuta zegoela segurtatutakoan. Apoteosia izan da etxeratzea. Osaba ez dago bere onenean, eta aitak

ohean geratu behar du (igeltsua dauka besoan, eta buruaren alderdi bat total belztuta). Bigarren aldiz jausi da aurten, eta gero eta aberia handiagoak egiten ditu. Eztabaidan aritu gara, zaharrek ez dutelako nahi etxera zaintzailerik ekarri. Aita sumindu egiten da gomendioren bat ematen diodan bakoitzean. Zorroztarria eta labana lakoak gara bata bestearentzat.

Gurasoen etxean nagoenean, amarena izandako txandala janzten dut, zereginetan erosoago aritzearren. Kalterako izaten da, amaren antza hartzen diodalako neure buruari, eta haserretu egiten naiz, erabat ikaratzen nauelako alaba izanik neure ama bihurtzeko arriskuak, aita eta osaba zaintzeko penitentzia hartuta (aitita-amumen gaixotasun kroniko astunak jagoteko esfortzuan galdu zuen amak osasuna, sakrifizioaren xederan). Pasilloan atzera-aurrera, sukaldetik logelara noala, konejoa erretiratu, pastillak eraman, izarak aldatu edo kaska soilean pomada egitera, ernegazioak ematen dit bulkada, ez afektuak. Munduko enfermera hoberena izanagatik (hala esaten die aitak bisitan datozkionei), ez diot irribarrerik oparitzen, ez animorik ematen. Konpromisozko musuren bat izan ezik, maitasun-erakutsi gutxi nire aldetik.

Aitaren zahartzak amorratu egiten nau. Atzera eragiten didate begirada lerdotuak, geldotasunak, eta zentzutasunaren eta axolagabekeriaren arteko espazio zehazgabe horretan bertan goxo egiteko ageri duen erraztasunak. Gaingiroki, arreglatu izan gara, harro dago nitaz, baina pozez ñir-ñir egiten diote begiek, eskuetan espraia edo erratza ikusten nauenean, bere zerbitzura emana (bera seguru sentiarazten). Ezin dut hori jasan. Gauza bat egiten bukatu orduko eskatzen dit hurrengoa. Neure senetik ateratzen nau beti nagusi izan behar horrek: hiltzen den egunean ere, katabutetik aginduko digu berogailua amatatzeko edo atea giltzez ixteko.

Ez da horrelakoa berak nahita. Erneguaren mende bizi da bera ere: zahartzaroa erresignazioa da. Behin esan zidan, errabiaz ahotik bitsa botatzeko gutxi falta zitzaiola: «Haserre nago ni! Ni beti nago haserre!». Lastima eman zidan, sindrome sendagaitza duen gaixoaren aitorpen etsituaren airea hartu niolako.

Zer egingo luke ni barik? Badaki.

Neuk ere badakit autonomia ezaren beldur dela, eta heriotzaren beldur. Badakit sostengu amultsua dela behar duena, baina uxatu egiten naute haren manera zakurrek, zirikatzeko izaten duen apetitoak.

Koleratu egiten naiz aitari eskaintzen diodan denbora neure bakeari kenketak egitearen emaitza delako.

Nire bakeari kenketak egitea eta nire izaerari batugai toxikoak gehitzea eragiketa baliokideak dira. Oihu egin diot, auskalo noiztik atzendutako gogoz:

– Ez naiz izango zure ongizatearen prezioa, entzun duzu? Ni ez.

Isilik geratu da. Niri, aldiz, ahoa berritu zaidala egin zait.

Zeregin guztiak amaitu eta alde egin dut. Alde, berak hantxe eduki nahi nauelako. Ez zuen alaba egoista hau espero laurogeitaka urteak pasatuta. Burumakur geratu da ohean jarrita, dodotisari zirika. Ez zaitez eskandalizatu: aita gizon gogorra da, ez pena emateko modukoa.

Amorrua debekatu behar al diogu geure buruari?

Igogailuan sartu naizenerako, bestearen erregua iritsi zait: «Zaindu aita, egizu nigatik». Isilka erantzun diot: «Bai horixe, zeugatik, ama. Norengatik bestela?». Kontzientziaren eztena ekina da.

Jubilatuen elkartean lortu dut adinekoak zaintzen dituen mutil baten telefonoa. Egin dugu tratua: datorren astetik aurrera bera arduratuko da nire zaharren eguneroko gai-ordenaz.

Aitarekiko haserrealdiak suspertu egin nau.

Ezin artegago ibili naiz batetik bestera. Gurasoenean garbiketak egiten nenbilela, argazki-kaxa bat topatu dut armairu baten gorengo baldan. Argazkiei begira aritu naiz, jostunak hainbat enkargu amaitu eta gero bere lantokiaren zolan sakabanatutako oihal-txatalak aztertuko lituzkeen bezala, ea erabileraren bat eman ala bota. Neureak ere baziren tartean, organismo biografiko baten zelula solteak.

Badakit eta ez dakit zelan pasatu den denbora gaur arte: argazkiek erdizka baizik ez didate lagundu hori ulertzen. Dena den, guztien artean, bazegoen argazki bat, lasaibide izan dudana: neska txiki bat, boligrafoa eskuan, paperari begira, lehen aldiz zerbait ikusten ari denaren begiradarekin. Argazki horrek harrapaturiko une hori da, konturatu naiz, memoria oso baten erroa, deitu bizitza, deitu fikzioa.

Indartu nau semearekin egoteak ere. Haren falta itzela igarri dut «erbestean». Inpresio tristea egingo

zion amaren jarrerak. Errudun sentitzen naiz bestelako patxadarik erakutsi ezin izanagatik.

– Zure aitita troll bat da –esan nion herenegun, Santutxuko txinatarrean afari-merienda egiten ari ginela.

Haren esaldi kutunak (nire esaldi kutunak) orain-dik ere ulertzen didala erakutsi dit.

– Zu lasai, ama.

Zer, halakoa bada, nerabe hain heldua. Gauzak normal doazenean, badaki noiz egin paso. Esan dit:

– Topatuko duzu behar duzun moduan maiteko zaituena.

Txalo jotzeko moduko sententzia. Uste du beste zerbait itxaroten dudala. Neuk ere uste nuen. Gazteegia da konturatzeko, azken batean, ez garela hainbeste aldatzen.

Herrian egoteak ere bizkortu nau. Galtzada-harrizko kaleetan, denda ezagunetan edo tabernetan, bidegorrian eta moilan txertatuta nago paisaiaren beste edozein elementu adina: bertokoa naiz.

Hego-haizea dabil. Nekadurak begiak zedentzen badizkit ere, Santa Katalinako farotik «izpi berde» bat

sumatzen dut Artzabaletik hara, itsasertz zurixka hartan, neu noiz inguratuko.

POZOI TANTA BAT

– Ikusi egin nahi zaitut.

– ... Erdi lotan nago.

– Ez esan gezurrik, argia daukazu balkoian. Banoa.

M. eskaileran gora sentitu dut. Atea irekiz gero etorriko zen arriskuaren jakitun izanagatik, zoliagoa izan da M. hainbeste denboran begi-bistan ez izatearen minsorra. Begiak ere izaten dira urgura.

Ez dut besarkatu, ez nau besarkatu. Konplimenduzko berben tokia isiltasun egongaitz batek hartu du. Hemen M., betiko begirada deslai eta guzti. Horixe da M.k niretzat duen peligroa, begirada hori, bere saroia izateko gogoa ematen didana.

– Okindegira noanean, edo portura jaisten naizenean, egunero, zure etxepetik pasatu eta «Non ote dabil Meibi? Zer moduz ote dago?» pentsatzen dut. Esatera etorri naiz, jakitea nahi dut.

Ezpainak estutu ditut. Gaitzespena irakurri du nire keinuan: jokoaren arauak beste batzuk dira orain. Begi-begietara hitz egin dit.

– Egun hartan, hondartzan, lehen aldiz berba egin genuenean, zeu zinen han egon behar zuena.

Pozoi-tanta bat egarri denari, ez da zilegi.

– Faltan hartzen zaitut –jarraitu du.

– Neuk ere bai, baina zer esan nahi du horrek...

M.ren mineriak ezin ditu estali azken hilabeteotako miseriaren zuloak. Ezin du ordezkatu haren ahotik sekula entzuterik izan ez dudan esaldi puta hori («maite zaitut». Hain zaila da esaten? Dena den, nahiago ez entzun, «neure erara maite zaitut» epel bat entzun baino).

Ez dakit zer nahi duen. Batzuetan aingura bila ibiltzen gara, lasta eske, zehatz jakiteke zergatik. Inoiz ez dut jakingo maiteminak, atsegintasunak edo esker onak ekartzen duten nigana. Edota guztien multzoak. Esan diot:

– Ez larritu, lehenagotik ere ohituta gaude-eta malamaneran egoten, bai zeu, bai neu.

Erraza zatekeen tentazioan jausi eta erresistentzia handiagoa agertzea M.ren zintzotasuna proban jartzeko. Baina taktika zentzugabea deritzot, azpildura zalea izan ezean.

Desengainua islatu da M.ren masailetan.

– Ez duzu halabeharrean sinesten, badakit. Baina berba egin behar dugu –ekin dit.

– Bihar goizean, hondartzan.

Oharra: Bitarte honetan langabeziak gora egin du. Hedabideetan kakaraka dabilen krisiak jendeari ukabila itxiarazi dio sosek poltsikoetatik ihes egin ez diezaioten, beste jende asko hipermerkatuen kanpoaldean pilatzen den artean, edukiontzietatik elikagaiak eskuratzeagatik. GKEen arabera, baliabideak ez dira nahikoak, ezta hurrik ere, laguntza eske doazen ilarei arreta egiteko. Badira aitona-amonen etxera bildu diren familiak, haien pentsioa beste diru-iturririk ez dutelako.

Fikzio politiko bat da krisiaren epizentroa, finantza-erakundeek asmatutako burbuila toxiko programatua. Noiz egon da kapitala kontrola galtzeko prest? Popatik.

Ez dut hori bat-batean aipatzen gizarte kutsatu honen salaketa egiteko erantzukizunak xaxatu nauelako (demagogia litzateke, gainera, neure bizi-tankera kontuan izanez gero), baizik eta ahalkizun dudalako nire garramura izatea idazki honen grabitate-zentro aldagaitza egunak joan, egunak etorri. Nolabait, zikin sentitzen naiz hain neurekoia izatearren. Onartzen al

duzu desenkusarik? Ezezkoan bazaude, ez zaitez joan hurrengo orrialdera. Bidal nazazu pikutara.

TROMPE L’OEIL

Uda-hondarra urriaren atzenetan. Zohargi. Itsasbehera.

Neure martxan heldu gara irlaraino. M.ren alboan igeri egin bitartean, pentsamendu inportanteak izan ditut: «Ez naiz depilatu, zuri nago, bainujantzi berria behar dut».

Karrabasoak zeuden haitzetan.

Bizkor aritu gara. Amaieran, musu bat ezker sorbaldan, beti bezala. Eta berba berriak: «Neure Meibi».

Ez dut emoziorik sentitu. Ez dakit nora alde egin duen nire urrumen hileta-soinuak. Ez dut ezer esateko beharrik nabaritu, ez hitz samurren bat eztarrian trabatuta geratzeko beldurrez, lehenago bezala, ezpada ze esanek enbarazu egiten dutelako balioa egite hutsari eman nahi diozunean.

M.k ez dit esan maite nauenik, ezta zenbat ere (kantitatea edo intentsitatea ba ote dira azaltzeko moduko kontzeptuak?). M.k ez dio ihes egiteko betarik

ematen esaldi magiko topikoari: barne-muinetan gordeta eramateko nahi du, ez bestela.

Kamera baten bidez ikusita bezala gogoratzen dut topaldia, ni neu neure buruari begira, bikoiztuta, eszenan eta eszenatik kanpo aldi berean. Irudi-segida batean laburbildu ahal nuke. Eta irudiak esatean ez dihardut ikusmenaren bidez hautematen ditugun edukiez: zenbatez ezabaezinago dira ukimenak, entzumenak edo usaimenak sorturiko irudiak, eta horien baturak osatzen dituzten irudi mentalak, eraikuntza sinestesikoak.

Bat. Emakumeak gorantz zuzendu du aurpegia. Uso-andana bat dator zerua ilunduz. Lerro zuzen bat marraztu du (euri-tanten ibilbidea, argi-izpi bat, arrainen ahoan bere arimaren bila dabilen arrantzalearen haria, soka-tresna baten nota, edozein kolore puru). Erretinak badu gomuta. Emakumeak bira oso bat egin du, keinu zabala besoa luzatuta, paisaia ekortu guran.

Bi. Olatuen tua, marmoken belak, egurrezko hitz bat jitoan, algetako argi-anpuluak.

Zer dago tantan? Izenordainak: zu eta ni, gu izan gabe.

Ispilu hauskorrean, amildegirako gonbita.

Emakumeak hotz ditu eskuak. Gizonak hartzen dizkio, eta estaltzen.

Hiru. Udazkenak emango dio udak eman ez diona: grapa pare bat malkoei eusteko.

Hauxe da egoera, irlaren arrakala batean: hankak tinko itsas likenez beteriko harri batean, eskuak haitzaren kontra, bularrak dantza zurian bainujantzitik kanpora. Gizonak isuri du. Eguerdiko argiak ezpainak isiotu dizkie ginebrazko lip-gloss batek bezala. Igeri itzuli dira ertzera. Gizonaren hats garratza kriseilu bat da arekak argitzen.

Lau. Emakumeak badaki oholtza bat dela hondartza orain. «Love me, love me, love me» diote haren oinatzek harea zartatzean.

Kristalaren bestaldean geratuko da dena, euriteen ondoren.

Aldirietan dabiltzan taxiak legez, lainoaren ahotsera baitaratuko dira biak.

Ipuin bateko teilatu gorria irudituko zaie batak besteari emandako guztia.

Bost. Eta puntua: irudi-ikono guztien bilgunea, letra baten lehenengo kirrinka. Zu, urrunean.

Jakina denez, irudi batzuek bista engainatzen dute, ez dena badela edo beste zerbait dela sinetsarazten baitigute. Bada pintura mota bat garai guztietan erabili izan dena hormak apaintzeko. Imitatzean datza, bai arkitekturazko elementuak, hala nola ateak, arkuak edo leihoak; bai izaki bizidun nahiz bizigabeak, animaliak, zuhaitzak eta iturritxoak, kasurako; edo baita etxea apaintzeko gauzakiak ere, gortinak edo loreontziak. Teknika horri *trompe l'oeil* eta *trampantojo* deritze frantsesez eta gaztelaniaz, hurrenez hurren, eta iruzurraren ideia azpimarratzen dute. Euskarazko ordaina, berriz, begiari egindako tranpa adierazteko, *miragune*. Terminologia espezifikoaren ikuspegitik herrena gerta badaiteke ere, berba aproposa deritzot liluraldia adierazteko. Izan ere, espejismoak, zoro-ametsak, engainuak, irudi hutsak dira. Hutsak.

HILDAKOEN BEGIAK

Domu Santu eguna berton emateko aukera izan dut. «Hautsa zara eta hauts bihurtuko zara» esaten zigun abadeak bekokian hatz lodiaz gurutzea marrazten zigun bitartean. Hortik ote dator T.S. Elioten bertso-lerroa? «Beldurra erakutsiko dizut hauts-eskukada batean». Aitita sakristauak azaldu zidanean ereinotz bedeinkatuak errez prestatzen zuela hauts hura, misterioa galdu zuen erabat niretzat.

Irakiten daukat gorputza. Panteoian pausatu ditut eskuak, kiskaltzear, txapa gainean legez. Lore zimelen ordez berriak ipini, eta lixaz karrakatu ditut likenak (hilen egoitza kurioso edukitzea ere nori dagokio?).

Kanposantuko farolen argi-lurrunak etxeko sua ekarri dit gogora. Ezkaratzean, etxeko emakumeek burdinarekin altxatzen zuten sutegiaren tapa, eta patata-azalak, ezpalak eta janari-hondarrak sartzen zituzten. Suak ia harrapatu egiten zituen indaben, lixibaren, kolonia merkearen eta botiken usaina zeukaten esku laztu haiek. Guztien artean hazi ninduten: ama, amuma, tia, amabitxi. Haien usadioari jarraitzen badiot, nire heriotza ez da izango gogoangarria, aurre-

tiko sufrimendu gupidagarriz hornitutako amaiera diskretua baino.

Amak gurutzetxo bat egiten zuen orriaren goiburu, gutun bat idaztera jartzen zen bakoitzean, izan aitari itsasora, izan lehengusinari Ameriketara bidaltzeko. Sineskera hari esker ondu egiten zuen borondatea, okerreko ezer esatetik libre geratzeko. Zuhurtziaren artea ikasi nuen harengandik.

Amuma ez zen funtsik gabe berba egitekoa. Gurago zuen isilik egon, bere atazetara emanda eta bere pentsabideak berarentzat gordeta. Bost urte eman zituen ohean ankilosiak jota, gorputza alde batera jartzeko gai ere ez zela. Isiltasunaren boterea irakatsi zidan.

Tiak (gerran baserria bonba batek erre eta amumak etxean hartutako ahizpa neskazaharrak) buruari eragiten zion sarramuskaren bat egiten nuenean. Arteztasuna estimatzen trebatu nintzen harekin. Goizero jaikitzen zen niri gosaria prestatzearren institutura joan orduko. Gatz apur batekin irakindako ura eta kotoia ere ipintzen zizkidan, begiak garbitzeko. Gela berean egiten genuen lo. Sentitzen nuen bere gorputzari hatz egiten, edota atzamarka amorratuan. «Zer, tia?» galdetzen nion. «Ezer ez, umea, egizu lo» eran-

tzuten zidan. Goiz batean, sukaldean geundela, odolparrasta bat isuri zitzaion gonapetik. Ez nuen ulertzen nondik zetorren baldosetan zabaltzen ari zen odola, txokolate kolorekoa, gosaltzeko orduan. Aluko minbiziaren berririk izan duzu inoiz?

Amabitxi, pleuresia zuenez, ohean ezagutu nuen. Martirien eta santuen egitandiak leitzen zizkidan arratsaldeetan, eskolatik heldutakoan. Atzamarrean luzitzen zuen eraztuna promestu zidan, harri-kristal morea zuena, bera falta zedinerako. «Por favor, gracias, usted» noiz eta nori esan bereizten erakutsi zidan.

Zaharrez eta gaixoz inguratuta hazi nintzen. Haiei zor dizkiet nire «baina» guztiak, nire hildakoen begirada jakinguratsu, muker, aztertzaile, samur, inoiz ez axolagabe, gogaitu, goresle eta maitatiei. Zizareek kontuak aspaldi atera zizkieten arren, haien begiak ez dira nigandik egundo desbideratu. Haien ondareak ez du baliorik inorentzat, neuretzat izan ezik, eta halaxe, gogoetok ere ez dute zertarakorik, neuri lagun egitea ez bada: paper-orea dira eta paper-ore bihurtuko dira.

Behin batean arropa baten etiketan irakurri nuen biskosaren definizioa. Harritu egin nintzen, ez nekielako biskosa egiteko lehengaia papera zenik. Paper-

oreak zetaren mugimendua ematen omen die beste materia batzuei, haiekin nahasten denean. Antzera, pentsaketa hauek arintasuna emango diote nire nostalgiari.

Haurtzaroaren nostalgiaz, adituek esaten dute zera dela, aitortzeke dugun amorruaren lehen geruza. Ezen, urteak joan, urteak etorri arren, txikitan ikasitako portaerek iraun egiten dute: azkordinen moduan, desagertu eta berriz eratzeko joera daukate. Halandaze, ikasketa orok badu bere beste aurpegia, ez hain dotorea, dominek edo loteriako billeteek duten bezala.

Konparazio baterako, zuhurtasunaren ifrentzua da ahotsa goratzen duenari kontra egiteko garunik ez garatzea. Diplomaziak badauka bere laidogarria.

Isiltasunaren aldaerak hain dira ugariak, non esan gabekoek, erdizka esandakoek edo azpitik esandakoek atarramentua nahiz espantua emango diguten, aldian aldika.

Halaber, zuzentasunaren sasikumeak dira «aurrera, tira ba, hori ez da ezer» eta antzeko esaldiak. Protesta-senaren ordez, plazebo eskuraerraza da amen jesus egitea.

Eta gizabidearen iruntzian hipokresia dago. Bata non amaitzen eta bestea non hasten den bereiztea zaila denez gero, anbiguotasunaren pistan patinatzen ohitzen ikasten du batek, txairo eta xalo.

Ondo ikasiak eskertuta eta gaizki ikasiak aztertuta, etxeko emakumeei leporatzeko dudan kargu grabe bakarra, hauxe: «ez» esaten irakatsi ez izana. Egin kontu, bitaminekin batera, amaren esneak *betibai* lorearen haziak erein zizkidala mihian. Hazi horiek gerora ematen duten lorea espartzuzkoa da, aho-mamina lauskitzen dizuna errotik moztu nahi duzun bakoitzean.

Etxeko emakumeek ez zuten bakarrik bizi nahi izan, ez zuten aldaketarik bilatu, ez zuten kezkarik izan beren helburuen inguruan. Hala ere, ezin esan inoiz begiztatu ez zutenik bestelako aterik eta sentitu ez zutenik hura zeharkatzeko tenkadarik. Zorionez, ez dut haien sekretu, bertute, haserre, akats, beldur, menpekotasun, jelosia eta frustrazioak ikertzeko asmorik. Ez ditut distortsionatuko, nireak ez bezala.

Ahulguneak:

1) Elizaren arloko berba gehiegi: sakristau, bedeinkatu, martiri, gurutze, panteoi...

2) Familiako emakumeak idealizatuta daudela ematen du.

Abnegazioaren kritika sendoagoa egin (alderdi negatiboak sotilegi ageri dira).

3) Tradizioari atxikirik jarraitzeko asmoa ez badut, zein da nire mezu erreala goiko puntu biei dagokienez?

4) Irlako eszenak (aurreko atala) eta hilerriko eszenak talka egiten dute.

Den-denean utzi. Azken batez, halaxe gertatu da. Batera nahiz bestera sarri joaten naiz, egun berean batzuetan.

KRISTALEZKO BEGIA, TOPIKO BAT

Bilatzailean *Cristal eye* tekleatuz gero, parrastan agertzen dira erreferentziak. Klasikoetatik hasi eta gaur egungoetara, bada kristalezko begirik zenbat-nahi. Baina zer dira Interneteko unibertsoan diz-diz ari diren horiek? (Utz dezagun alde batera zinea, terrorezko generoa bereziki, torturatzaile sadikoek biktimen begiekin asmatzen dituzten dibertimenduak).

Eskuarki, literaturaren historiak utzi digun metafora bat dira kristalezko begiak, topiko bihurtu dena. Zenbait adibide:

Shakespearek 46. sonetoan aipatzen ditu. Kristalezko begiak (alegia, begi garbiak) maiteñoaren ezaugarri berebizikoa dira, lady baten barne-edertasunaren atributua. Antzera egiten du Bartholomew Griffinek, begiak izarrekin konparatzen dituenean: «The purest cristal eye that seen... Her eyes the brightest star...».

Beste kasu batzuetan, kristalezko begiak izarrak eurak dira, hala nola Robert Serviceren bertsolerro honetan: «That cristal eye that raked the sky...».

Argizagiekin bezainbatean, kristalezko begiek urarekin ere badute loturarik, patetikoak suertatu arren honelako esaldiak: «Kristalezkoak dira zure olatuak, zure begietako olatuak, zure kristalezko begietako olatuak...» (Pee Wee). Kristalak eta urak duten antzagatik, kristalezko begiek tristezia ere adieraz lezakete, zintzotasunaz aparte. Halaxe, begi negartiak dira Henry King zenarentzat, zeinak 1669an idatzi zuen berrehun urte geroago Edward Elgar konpositoreak musikatu eta Londresko antzoki batean estreinaturiko kantu ospetsua: «Dry those fair, those cristal eye...».

Récit honi dagokionez, kristalezko begia da nire dibagazioen irradiazio-puntua, narrazioaren sintaxi mehea nolabait egituratzen duen elementu errepikakorra. Diskordantziak gorabehera, bertara jotzen dute edota handik abiatzen dira atalak. Ondorioz, semantikaren luze-zabalari esker, deitu perla, puxtarri, latsarri, arrautza, koral, izar, pinporta, bola, protesi edo dena delako, nire kristalezko begia neure topiko partikularra da, eskubide osoarekin.

Kantuaren partitura inprimatu eta koadernoaren azalean itsatsi dut. Dotore geratzen da. Berdin jar nezakeen dunen postal bat. Edo nire «izar distiratsuaren» argazki bat (begiaz ari naiz, ez M.z). Edo ispilu bat.

Partiturak kutsu dezimononikoa ematen dio, lastima. Ezen testu hau modernoa da. Ala ez? Garaiz kanpokoa gertatzen da dolu baten kontaketari hainbeste buelta ematea, ezta? Hainbat hobe litzateke «Eta zer?» axolabako bat esan eta, bizkarra jiratuz, istorio honi errematea ematea behingoz. Baina ez: ahalegina egiten ari naiz, tai gabe, erakusteko, «Zain Dagoena» izaten ohituta nengoen arren (maite duenak berea omen du itxarotea), nire begiak minberatiak bai, bazirela, baina ez pasiboak.

ONE STAR

Irlakoaren ondoren ez dut M. ikusi (ez dugu batak bestea topatzeko intentorik egin). Neure buruaren aktore izaten jarraitu dudan arren, baretu egin naiz. Ezin kabituan egoten nintzen lehen, bion arteko hitz, keinu eta begirada bakoitza urkultzen uneoro. Asmo eskuraezin batek atxilotuta nindukan: batasun-nahiak.

Garbi esan nion: «Ez naiz zurekin itzuliko».

Baratzera etorri naiz. Utzita dago. Aspaldian ez du inork oinik hemen ipini, eta landare baldresak hedatu dira. Kanpoan izan naizen artean haizeak bota eta apurtuta topatu ditut loreontzi batzuk. Landare ihartuak ikustean, kalendularen bat bilatu dut bistarekin. Badago banakaren bat, berantiarra gaixoa. Kuia txikiak ere usteldu dira lurrean. Loratzen direnean, kuialore laranjek txorikumeen moko irekien antza izaten dute; geroago, bildu eta zurbildu egiten dira, su-lama arolen forma hartuz. Udako gauetan igelen klok-hotsa ere izaten zen. Gaur sartu naizenean ez dira txoriak tropelean hegaldatu.

Argilunetan dago lur-saila. Badira kantal ospelak, non goroldioak argia irensten duen, eta alderdi eguzkitsuak, katuek nagiak ateratzeko aukeratzen dituztenak. Alde batean sagarrondoak daude, eta haien ondoko horman, huntz hostozabala. Beste aldean, madari-arbolak eta mahats-parra biluzia. Orain ez da bereizten non zeuden bugainbilea, azalea, surfiniak, krabelinak.

Zokondo batean harrizko etxetxo bat dago, antzinakoa. Hodi batek etxeko teilatutik putzuraino bideratzen du euri-ura. Horregatik, alde hori hezeagoa da, eta gihartsu hazi dira limoiondoa, gorostia eta labanda. Palmondo bat ere bada etxearen ondoan, oinean dituela larrosa-landareak porlanezko eskudela baten barruan landatuta. Alboan jartzen nuen mahaia, idazteko. Sarri jaikitzen nintzen landareak ureztatzera edo hosto erreak kentzera. Ekintza horiek, beren sinpletasunean, elkarrizketa laburren parekoak begitantzen zitzaizkidan («Zer moduz zaude, txiki? Hemen naukazu, neuk zainduko zaitut»). Geranio pinttanoek eta hortentsia gorriminak eskertzen zuten batik bat. Eta nik neuk, orrialdeak bete ezinak sortzen zidan gogaitura ematzeko aitzakia izaten baitzen gehienetan ortuan hara eta hona ibiltzea.

Hauxe izan dut, sarritan, ezongi-unadak eramateko bazterra. Ai, Emily Dickinson, zuk bai jakin! «Ohartzen naizenean hilkorrek ikusiko ez duten lorategiak aliritzira segatzen dituela lore-kuskuak, eta erleari ere izkin egiten diola, alde batera utz dezaket uda, kexarik batere gabe». Norberaren baitako lorategi horretan norberari gogoko zaizkion haziak erein ezean, akabo. Kuia-loreak bezala, gure orduak noiz nasai, noiz kuzkur ematea dagokigu, bizitza zera delako, agurren kateaketa bat, minen errepika, eta tartean amodioaldiak.

Toki hau ez da paradisu galdu bat (hemen eta gaur dago), ez da paisaia bukolikoa (izerdiak bota nituen hibiskoak landatzen eta belar txarrak segatzen, belar txarrik baldin badago), ez da nire sancta sanctoruma (mundutarra da hemen egosten den guztia), ez da klub bat (atea zabalik dago nahi duenarentzat). Bizitzako gertaerak gogorarazten duten momentu iheskorrak begiztatu ditut hemen, adibidez, tximeleta kalaren bularrean gordetzean edo mikaren mokoak harra akabatzean. Toki honetan xehetasunei begiratu izan diet, hautu bakoitzaren arrazoiak aintzatetsi ditut, eta horiekin gozatu dut neure arauen arabera: toki honetan idatzi egin izan dut.

Horrenbesteko garrantzia ote dauka horrek?

Erritmo konstantea, egitura orekatua, leku-denboren arteko erlazio sinesgarriak bilatu ditut; arretaz so egin diet jazoerei nahiz sentimenduei; airean doazela harrapatu ditut solaskideen hitzak; unean-unean egiten ari nintzenaz eta haren bidez lortuko nuenaz kezkatu naiz. Idaztea ez da esaldiekin mekanoak antolatzea, barruko zirimolei aurpegia ematea baizik, galantei nahiz ustelei. Horretaz jarduteak ondoeza barreiatzen du zainetan, eta tripei eskatu behar zaie horretarako adostasuna. Ez da uneoro, erraz eta debalde lortzen. Gertu egon beharra dago idatzitakoaren baitan erne eta garatzen den patua onartzeko.

Mary Annette Duchamp von Arnim Pomeraniako etxalde bakarti batean bizi izan zen, bere hiru alabekin, *Elizabeth eta bere lorategi alemana* nobelan kontatu zuenez. Landareak eta zuhaitzak zaintzeko afanaren bidez adierazi zuen gizaldiko arau sozialen aurkako errebeldia, ironiaz eta sentiberatasunez: «Egun argitsu hau osorik eman dut aire zabalean, lehenik anemonen eta zelidonien artean jarrita; arratsaldean belartzan etzanda, urki zilarkaren adar biluzien artetik gorantz begira. Umiltasun-lezioa hartu dugu, eskuzabaltasunez xahuturiko hainbeste edertasunez eta per-

fekzioz inguraturik egonda, geuk gogoz kontra praktikatzen dugun errukiaz jabetzean. Itxaroten dut egunero hazi ahal izatea, hainbeste maite ditudan loreak bezala». Loreak jagotea ez da funtsik gabeko denbora-pasa.

Baratzeak badu zerbait basatia jasmin endredatuan, sekula-belar oparoegian, asun asegaitzean; badu zerbait arrazionala piper, indaba eta ilar ilaretan; badu zer edo zer onirikoa landare igokarien orri gorrindoletan; badu zeozer babesgarria mendafinan, intsentsuan, albahakan; eta badu misteriorik arrasteluak inoiz ere aztarrikatzen ez duen orbelaren azpian. Neure komenientziako esanahiz hornitu dut baratze hau. Horrexegatik da neure txokoa.

Hara, kristalezko begi bat dut begira handik goitik. Eskerrik asko, Edith Matilda Thomas: «Apple-green west and an orange bar, and the crystal eye of a lone, one star». Klik egiten ari da, begia begiari keinuka. Topikoa topikoaren gainean. Ulertu dut mezua: zaindu lurra, garbitu ispilua. Baratzea eta idazkuntza, biak ditut esparru bera: locus (amoenus) conclusus et inconclusus.

Janis ekartzera etorri naiz baratzera. Kaiolako atea zabaltzearekin batera, azaroko zeruan aienatu da. Gauak ez dio bidea moztuko.

ORDU ONEKO UNE KARANAK

– Mitxu! Besarkada bat!

Gozoa da G., errieta egiten duenean ere.

– Eskekoa ematen duzu. Ez zaitut honela ikusi nahi. Goazen biok ileapaindegira. Noiztik ez duzu ilea tindatu? Zu ez zara ermitaua izateko jaio, laguntxu. Non ezkutatu zara, ba, basamortuan?

– Gutxi gorabehera... –erantzun diot, erreskatearen emozioagatik murrinka.

Txamarra bana ere erosi dugu. Ez nuen hartuko G.k sakatu ez banindu. Ez zait zipitzik gustatzen arropak probatzen ibiltzea.

– Arratsalde bakarrean gaztetuta, potxua. Barrukoak besterik ez zaizkigu falta.

Besotik helduta joan gara Eskolaperaino. Bularretakoak eta kuleroak aukeratu ditugu, txanbelinak. Musu pare batekin agurtu dugu elkar.

– Laster arte, laztana. Eta ea noiz entzuten dizudan esaten zerbait topatu duzula, eta ez galdu, nork eta zuk...

Zer lixta den nire laguna.

Lentzeriarekin disparateak egiten nituen M.ren epokan. Erosi izan ditut behin baino jantzi ez ditudan prendak, ez garestiak banan-banan hartuta, baina guztien batura hirurehun eurotik gorakoa inoiz.

Berdin zait nitaz eta idazten ari naizen honetaz egiten ari zaren edozein juzku. Oihalki gardenak, atzebako kuleroak edo ligadun galtzerdiak plazeraren aurrerakinak ziren nire tiraderetan eta desioaren finkalekuak nire irudimenean. Strip-tease kontuetan sosa hutsa izan arren, gelako oxigenoa ahitu arte eman eta hartzen dut atsegina.

Amaren argazkiarekin berbetan topatu dut aita, besaulkira altxatuta. Hobera egin du.

– Deituko dizuet ondo heldu naizela esateko.

Muturtuta utziko dut, badakit. Besarkatu egin dut.

– Konforme... –esan dit–. Kontuz bidean.

Lasaitua hartzen dut denek beragan ikusten duten gizon jatorra neuk ere ikusten dudanean.

Osabak egutegi-tako bat ekarri dit bere gelatik.

– Zuri beste gauza batzuk gustatzen zaizkizu, baina hemengoak ere politak dira.

Ohitura dauka eguneroko orritxoaren aurre-atzeak leitzeko: Eguzkiaren eta Ilargiaren sartu-irten orduak, aldadenborak, pertsonaia ospetsuen aipu esanguratsuak edo mundu zabaleko esaera zaharrak, eguneko santu-santen izenak, animalien ohiturak, minipuin mitologikoak, osasun-aholkuak, otoitzak, trikimailu domestikoak eta orotariko jakingarriak. Gaur, azaroaren 4an, zerekin eta Helen Kellerren esaldi batekin tril egin dut: «Ez makurtu sekula burua. Izan ezazu tente. Begiratu munduari aurpegira zuzenean».

– Badakizu nor izan zen, ezta? –galdetu dit osabak–. Itsua eta gorra txikitatik, baina a zer emakumea!

Isiltasunaren eta iluntasunaren hormetan preso, eskuekin entzuten eta hitz egiten ikasi zuen. Idazten ere bai, eta idatzi zuen. Oker ez banago, berak esana da bizitzari buruz, edo abentura ausartia dela, edo ez dela ezer.

Etxeko zaharrak gidapean lagata eta hildakoei bisita eginda bueltatu naiz nire maileguzko bizilekura.

SOUVENIRS DE LEKEITIO

Simoneren loradendatik pasatu naiz eguerdian. Itxita zegoen. Postontzian utzi dizkiot pastak eta postal sorta bat.

Bazkalondoren, mezu bat bidali diot Remyri: «Tragoxka bat zor dizut oraindik». Beste ardo zuri bat probatuko dugu aurki, Mendexako txakolina.

Harritu egin naiz atea jo dutenean arratsalde erdian. Mezulari batek paketetzar bat ekarri dit: «Atention, madame, c'est fragile». Papertxo horia sinatu dut, barruan zetorrena zer zela eta zer zela. Zin-hitzak izan balira ez nien baliotsuago iritziko aluminio-paperean bilduta jaso ditudan denetariko lore eta barazkien hazi, adar-aldaxka eta zuhaitzen mentu-zotzei. Ohar bat ere bazen, laguntzen, M.ren letra: *Meibiren zain.*

Ohean jarrita idazten ari naiz zati hau, nire ondoan lotan dagoen gizonari begira. Gogoko izan ditut bere bibotearen ukitua azalean eta begietan eman dizkidan patxoak; gogokoago, zalantzarik gabe, frantsesezko

surmurrak belarrian. Maitatzeko moduko gizona da Remy. Remy ere bai.

Laster ez dut etxe hau beharko.

NATURA HILA

Simone eta biok gustura ibiltzen gara elkarrekin. Atzo erakusketa bat ikusi genuen Baionan. Lan klasikoak eta garaikideak, nahastean, guztiak natura hilak.

Natura hil bat konposatu behar banu, zein izango litzateke elementu zentrala? (edo nor?).

Margolanetan agertzen den guztia hilda dago, edo galdu egingo da. Alferrik galduko da? Hildakotik ez da bizia sortzen. Edo bai, batzuetan. Inoiz jaiotzen da zerbait, hazi ustelduetatik eta.

Halaxe, amodio hil batetik zer sortzen den, esku artean duzu emaitza. Gauza batzuk ez dira galtzen alferrik, ez alferrik galtzen.

Eta pintura batetik poema bat sortu da. Horra sorkuntza sorrarazten duen sorkuntzaren katea.

Argia ez dator iturri jakin batetik, ertz batetik, goialdetik.

Argia koadroko irudietan sortzen da.

Parpaila xingledun zapi batek aldare-itxura ematen dio mahaiari.

Rimbaudek esan zuen: «Bada Jainko bat barreka aldareetako zapi damaskatuetan, urrezko kalizarretan, intsentsuan, hosannen kulunkan lokartzen dena...».

Kristalezko loreontzi batetik larrosak amiltzen dira ostraz beteriko azpil batera.

Petaloak nahasi egiten dira maskor latz grisekin eta mami hori umelekin.

Txolarre-bikote bat txortan pinporta morez gainezka den adar batean.

Habia bat arrautza eta guzti, saski bat ziza eta guzti, sare bat izokin eta guzti.

Itsas kurkuilu bat, tarta baten apaingarri.

Angurri bat, mahatsa, mingranak, madariak, gereziak ispiluan, ispiluaren islan.

Guritasuna. Leuntasuna. Zaporea.

Barraskiloa narras laute baten zur arrosaxkan.

Beldarra tulipa baten korola mamurtzen eta inurria ogi-birrina garraiatzen.

Hatz-markak aizto baten ahoan.

Tximeleta pausaturik kopa baten hegian.

Kopa bat, iraulita, ardo isurika. Ardoak zapia tindatu du.

Kandela itzali berri bat, kea askatuz.

Zimeltasuna. Hauskortasuna. Iheskortasuna.

Pinturaren argilunetan, ongizate-giroa hautematen du nire begiak.

Plazeren katalogo bat dirudi.

Janarekiko kezka adierazten du.

Bizi-tankera bat islatzen du.

Izadiaren joritasuna erakusten du.

Gizakiak izadiaren gain duen boterea azaltzen du.

Bada, halaber, poltsiko-erloju bat, saten urdinezko xingola batekin.

Tik-tak. Memento mori. Gogoan izan hilkorra zarela.

Artistak giza izatasunaz duen ardura ere agertzen du.

Multzoak –etxetresnen sendotasunak, izakien dotoreziak, fruituen azalak, usaimenak ia sumatzen duen lurrinen bafadak– aztoratu egiten du nire begia.

Errealitatearen kopiaren perfekzio hori da txanponaren aurkia.

Multzoak –tretxuaren geldiak, animalia hilek eta zomorroen afanak, usteltzear den frutak, usaimenak ia sumatzen duen lurrinen bafadak– jabaldu egiten du nire begia.

Azpitestu artegagarri hori da txanponaren ifrentzua.

Txin-txin. Juste milieu. Bi aurpegiko lan baten batez besteko neurritsua.

Lanaren sinbolismoa moralizatzailea da.

Bizitzari buruzko ikuspegi bikoitza iradokitzen du.

Atsegina eta galerak. Oparotasuna eta gabeziak.

Argiak eta itzalak elkarri eragiten diote.

Liburu bat, zientzia. Partitura bat, artea. Igeltsuzko apaingarri bat, herren, aisia.

Natura lasaia da. Baretasun hori faltsua du baina.

Bodegoi nekropoli bat da.

Amen. Vanitas vanitatum omnia vanitas. Banitateen banitatea, dena da banitatea.

Ez garezurrik, ez burbuilarik, ez paper nahasirik egon ez arren.

Bizitzaren handiera eta heriotzaren ziurtasuna gomutarazten ditu.

Bada zer bat, zertarako bat, eta batez ere, nola bat. Bada prozesu bat.

Prozesuak lotu ditu botanika, zoologia, arkitektura, musika, erlijioa.

Amaituta al dago pintura? Kolorea, testura, harmonia, konposizioa, perspektiba.

Osatuta al dago begia? Betazala, betilea, esklerotika, irisa, ninia.

Zehaztu al da ideia? Alegoria, arrazoia, ametsa, emozioa, gogoeta.

Balantza. Gravitas. Obra bat artelantzat hartzeko behar adinako pisua.

Neure lepoko zapia haztatu dut. Txorien eta loreen marrazkiak ditu, koadroko tonu berberak.

Neure zapatei begiratu diet. Hebilla zilarkara bat dute, koadroko distiradura bera.

Berokian sartu ditut eskuak. Poltsikoak ditu, nolabaiteko sakonera, koadroaren atzealdeak legez.

Atzealdean baratze bat ageri da, arkupe sotila, lorategi idealizatu bat.

Lenteak. Trompe l'oeil. Iruzurra begiarentzat.

Zer dago pinturatik kanpo? Zer urtaro da?

Girlandak malko zuridun heliotropoen antzeko. Laster Gabonak.

Pauso bat luzatu, bestea gero, pauso bat luzatu, bestea gero.

Letra bat jarri, beste bat gero, letra bat jarri, beste bat gero.

Ibili-ibilian, hondartzara heltzen da bat: paisaiak aldatu egiten du nire begia.

Itsas belarrak mordoka, itoriko triku erraldoien antzeko.

«Heriotza, asko jota, fruitu eder bateko har xaloa da» esan zuen Yourcenarrek.

Argia, pintzel bat. Itzala, haren paleta. Hitza, nire begi mugikorra.

Itzalak munduko irudiak imantzen ditu.

Itzalak ez du uzten xehetasun guztietara iristen.

TORLOJU EDO ARDATZ

Nork hartzen ditu faltan garai zailak? Matxuratutako hegalei, sendatuz gero ere, zail zaie lehenago harrapaturiko goi-beheak harrapatzea.

Maite dudan norbait (edo zerbait) berriz galduko banu, arestian bezain kikil, ergel eta herbal jokatuko nuke? Beste asko bezain txepela izan naiz, nire damurako. Edo ez: eskerrak ahulak garen (hamar puntu, Anari). M.k esaten zuen maite-kontuetan gehiegizko joranez jardutea galbidea dela, ezin diogula geure buruari onetsi gaixotzeraino maitatzea. Neu baino gorago dago horretan.

Banekiena berretsi dut: amaieraren harrak ernetzen denetik pipiatzen du maitasuna. Hala izanik ere, agur bakoitza da enukleazio bat. Eta apendizea kentzeko egiten denetik harakirira bitarteko ebakuntza orok du bere alde interesgarria: atal ez-sano bat kentzea bizio bat arteztearen antzekoa da (zenbatetan ez dut haserrea ostendu, adibidez? Gaua amorratuta pasatu arren M.ren dorpeziaren batengatik, biharamunean irribarrez egiten nion ongi-etorria; eta gutxienetan, muturbeltz hartzen banuen ere, haren adikuneak

momentuan aldarazten zidan jarrera. Sarritan ibili naiz etxe narrasean hara eta hona dabilen hauts-malutaren antzera. Ez nazazu kritikatu, neure buruari agiraka egiten neu naiz iaioena). Denbora eman behar zaio hematoma emozionalari, klarutu dadin.

Gezurtaezina da maitasunak eder bihurtzen duela itsusi dena, eta bikain bihurtzen akastuna. Osasuna ematen du maitagaia gozatzen denean, baina bi modutan jo eta hausten zaitu: edo maitea zeureganatu ezin duzulako edo hura galtzen duzulako. Eta horrek kostu erantsia ekar lezake: duintasuna galtzeko merituak egitea. Arrisku hori hartzen du maitemintzen denak.

Sinetsarazten digute maitasuna eta zoriona eskutik helduta doazela, eta hala da, uneka. Lotuago daude, dudarik ez, maitasuna eta nahigabea: maitasunak huts egiten du gehiegi eskatzen zaionean.

Esango didazu maitasuna gu garen makinaren torlojuetako bat dela, ez ardatza. Erantzungo dizut, torloju edo ardatz, bera dela nire lerroak abiarazten dituen indar zentripetoa, hamarretik bederatzitan. Esango didazu lotura amaikorra dela, edo behin betikoa, kasuan kasu, azken batean, dopaminen eta oxitozinen portzentajeek ere determinatzen gaituztela. Erantzungo

dizut baietz, arrazoi duzula, nork geure erara asmatzen dugula maitasuna: ez dago begi berdinik, gizabanako berdinik ez dagoen moduan.

NAHIZ ETA...

Maite izan ditudan gizonei dagokienez, laburrean, hauxe: bati eman nion hogei urterekin ematen dena, *beti* hitzaren inozentzia; senarrari, nire urte ederrenetan neure definizioa izateko borondatea, eta geure semea; beste hari, sekretupean, ordu ahaztezin batzuk; M.ri, aire zabala, eta orrialde hauetan guztietan barnebiltzen dena eta ez dena.

Ez neurri berean, baina beraiek ere eman didate berenetik: aldi aberatsak bizi izan ditut denekin. Eskertsua izan beharra dago. Eta dotorea. Bukaera nolakoa, aurreko guztia edertzen duelako; eta bestela, izandako eder guztiak itzaltzen, Karmele Igartua parafraseatuz.

Zenbat bider zirimizkatu ditut hortz artean eta mukia zeridala esaldi hauek: «Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzan mintzatu, maitasunik ez badut, brontze soinulari eta ezkila tintinlari besterik ez naiz. Nahiz eta profezia-dohaina izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko adinako sinesmena izan, maitasunik ez badut, ez naiz ezer»? (Korintoarrentza-

ko gutuna nahitaez zaio ezaguna sakristauaren bilobari). Ez ditut berriz esaldi horiek ahoskatuko.

Neure buruari galdetu izan diot ea zer falta nuen «nire» gizonek ni osoro ez maitatzeko, ezen bat bera ere ez da kapaz izan nire bularraren tamaina neurtzeko (eskuekin izan ezik). Sobera izan dut, ez falta, bihotza, hirurehun gramo haragi xehatu, porexpanezko erretiluan, betiro merkezurrean.

Baina ez. Ohartu berri naiz oker egiten nuela itauna. Orain badakit ezein amodiok ez nauela sekula asebeteko: bada bakardade mota bat ezerk uxatzen ez duena.

Egon daitezela harro gizonok: beraiei zor diet, partez, poeta izatea.

Baina zer diot? Betidanik izan naiz eta. Konpultsioz idatzi dut arkatza erabiltzen ikasi nuenetik.

BEGI PROTESIAK, ARTISAUTZA LANA

Dakigunez, organo baten gabezia artifizialki ordezkatzeko erabiltzen diren gailuei deritze protesiak.

Begi-protesiak metil-metakrilatozkoak izaten dira, bai pisuaren aldetik, bai kostearen aldetik abantailatsuenak direlako. Enukleazioa burutu eta gero jartzen dira, eta 5-7 milimetroko lodiera izaten dute (goragunea itxuratzeko beste).

Protesia egiteko, husgunearen moldea hartu behar da. Horretarako, alginatoa (salda zuri moduko bat) isurtzen da zulora, ahalik eta forma zehatzena lortzeko. Likido hori solidotutakoan, pinporta ateratzen da, tira eginez (ezerosoa da, baina ez mingarria), eta pikorrak kentzen zaizkio bisturiarekin. Ondoren, limatu egiten da.

Behin azalera lisatuta, begi-niniaren zentroa markatzen da. Hainbat proba egin behar izaten da enparauak antzeratzeko ere, beste begiarekiko konparazioz: irisaren diametroa eta kolorea; esklerotikaren

tonua; kapilarren kantitatea eta itxura; eta niniaren tamaina. Dena den, ez dago begi identikorik lortzerik.

Azkenik, molde pintatua erresina plastiko batez forratzen da eta, dzanga, zulora. Nahitaez, begia estreinatzerakoan, jendeak zerbait arraroa sumatzen dizu. Euren harrimen horri antzeman bezain laster esaten diet: «Begia, berria dela».

Okularistaren ardura da hazpegiek ongizatea islatzea, neurri batean. Lau okularistak atenditu naute hogeita hamar urteotan, batzuk finagoak besteak baino. Azkenari eskatu nion erakusteko nola lantzen zuen nire begia. Alegratu egin nintzen ikusi nuenean irisa alpino arkatz marroiz marrazten, dri-dra, dri-dra, astiro eta aratz, esku-motrizitate ona duen umeak eskolako marrazki bat betetzean bezala, tresnari behar besteko presioa eginez eta ingeradatik atera gabe.

AZKEN BURUAN

Orduak eman nituen kontaera hau hasteko esaldien bila. Taxutzea, nik neuk neure protesia fabrikatzearen parekoa izan da niretzat. Azken puntua jarri bitartean, berbak ezin moldakaitzago gertatu zaizkit. Eta puntu eta kito esan arren, elkarrizketan jarraitzen dut idatzitakoarekin.

Ahal nuen, Elisabeth Bishopek poema hartan bezala, ironiaz errepasatu bizitza, eta esan, harridura alaiarekin, ohitu naizela gero eta gauza gehiago eta bizkorrago galtzen, «ezerk ez baitu hondamendia ekartzen». Hala ere, baliagarriago iruditu zait, hartutako eginkizunerako, Olesia Nikolaievaren ausardia anbiguoa: «Nire galeren artean nabil paseoan, nola mendizalea bere arroilaren ertzean».

Baliteke idazki honi eguneroko intimo baten kutsua hartzea. Horrek baditu bere arriskuak, eta izango ditu bere ondorioak. Ezen eta pertsonaia ere bihurtu naiz orriotan, ezinbestean: ni neu izanik, ez naiz neu erabat (nahita edo nahi gabe). Horra hor autoimitazioaren mugak eta onurak. Nire beste *ni* bat sortuz joan da hemen, pixka bat izukaitza, nire aginduetatik ihes

egin gura izan baitu bere kabuz itxuratzeko (antzera gertatu zaie M.ri eta besteri), eta utzi diot.

Aitorpen biografiko egiazkoa bezain iruzurtia eraiki dut, hain da meharra gertatuaren eta asmatuaren arteko bana-lerroa, ez dakit ondo ulertzen den zer esan nahi dudan: pintura bat (izan erretratua, paisaia edo natura hila), errealitatearen kopia leiala izanik ere, ez da errealitatea bera. Kristalezko begia ere ez da kristalezkoa.

Azken buruan, kristalezko begia, izan, berezitasun bat da, akats fisiko bat besterik ez, duena baino gora handiagoa esleitu diodana, interes literarioak eraginda. Ez gaitezen engaina.

Hitzez hitz sinetsiko al duzu kontatu dizudan guztia?

Bospasei kilo kendu ditut M.renaren ondoren. Orain, Coletterekin bat eginez, «gustura jasango nuke beste dozena-erdi zaputzaldi amodiozko, kilo pare bat galtzen lagunduko balidate».

Garajeetan aparkatzeak sortzen zidan estura gainditu dut.

Datorren udan bikinia jantziko dut, sabela erakustea testu honetako (eta nire paper guztietako) biluztasunarekin bat egiten duen bindikazioa delako.

Hartu berri dut konpromiso xume bat, zertan datzan aipatuko ez badut ere.

Ez ditut balentria horiek ahaztuko, beste aro baten hastapena markatzen dutelako. Zer izango da hurrena? Erro-erroko isiltasuna ikastea agian: idaztea chemin privé bat bihurtu eta mututzea.

Hilabete bi eta erdian asko irakurri dut (hanhemen agertzen diren aipuek gora egiten lagundu didate). Bereziki aipatu behar dut Annie Ernauxen *Pasio hutsa.* Istorio horrek irakatsi dit onartzen maitasun batzuk fondo galdura eginiko inbertsioak direla. Inoiz ez dut izango egile horren argitasuna, baina harengana atxikirik sentitzen naiz halabeharrez, nire anabasak askatzeko orduan gerizatu nauelako. Bestalde, J.M. Coetzeeren *Uda* nobelatik kopiatu dut oin-oharrak eta erabakitzeke geratu diren aztergaiak esplizituki adierazita uzteko ideia.

Hauxe antsiatu dut, preseski: argumentu sinple bat esaldi zehatzetan eta logikaz trenkaturiko paragrafo laburretan ematea, neure bizipenen bermearekin, heltzear den itxaropenaren bulkadarekin. Jazoe-

rak azaltzeko modua, gogoeten sakontasun-maila, ahalkeari kontra egiteko esfortzua eta literatur estiloa guztiz loturik daude neure izaerari eta eskarmentuari. Horien araberakoa da testu hau atzenean botatzen ari den hatsa.

Vieux Boucau,
2011ko irailaren 9tik
azaroaren 22ra bitartean